

KOMUNITATEKO FARMAZIALARIAREN ESKU- HARTZEA TRATAMENDUAREKIKO ATXIKIDURAREN HOBEKUNTZAN ETA MEDIKAMENTUEN ERABILERAREN DESADOSTASUNEN DETEKZIOAN

Doktoregotza tesia · 2020 · Ainhoa Oñatibia Astibia



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**Komunitateko farmazialariaren esku-hartzea
tratamenduarekiko atxikiduraren hobekuntzan eta
medikamentuen erabileraren desadostasunen
detekzioan**

**Ainhoa Oñatibia Astibia · Doktoregotza tesia
Universidad del País Vasco – Euskal Herriko Unibertsitatea
2020**



AURKIBIDEA

i. Glosarioa

SARRERA	1
1. Farmazia–zerbitzu profesional asistentzialak (FZPA)	1
1.1 Zer dira FZPA.....	1
1.2 FZPAen sailkapena.....	3
1.3 FZPAen ordainsaria	6
1.4 Medikazio akatsak eta FZPA	13
2. Atxikidura terapeutikoa	16
2.1 Definizioa eta terminologia.....	16
2.2 Atxikidurarik eza, osasun publikoko arazoa	17
2.3 Atxikidurarik ezaren arazoak eta faktoreak	20
2.4 Atxikidura-ezaren sailkapena	22
2.5 Atxikidura neurtzeko sistema.....	23
2.6 Atxikidura hobetzeari buruz argitaratutako azterlanak.....	27
2.7 Hiperkolesterolemiaren tratamenduan estatinekiko atxikidurak duen garrantzia.....	29
3. Medikamentuen erabileran desadostasunak detektatzea	31
3.1 Medikazio-akatsak eta desadostasunak sendagaien erabileran.	31
3.2 Sendagaiak erabiltzean sortzen diren desadostasunen arazoak eta arrisku-faktoreak.....	33
3.3 Medikamentuen desadostasunen sailkapena	34
3.4 Medikamentuen desadostasunak neurtzeko sistema.....	35
3.5 Medikamentuen desadostasunak detektatzeari buruz argitaratutako ikerketak	35
HIPOTESIA ETA HELBURUAK	47
MATERIALA ETA METODOA	49
1. Artikulu zientifikoen deskribapena	49
2. Ikerketen garapenean jarraitutako metodologia	51

2.1	Estatinekiko atxikiduraren ikerketa.....	51
2.2	Berrikuspen sistematikoa eta meta-analisisa	55
2.3	Medikazioaren desadostasunen ikerketa	56

EMAITZAK	61
-----------------	-----------

1.	1. Kapitulua: Komunitateko farmazialarien eta lehen mailako arretako medikuen esku-hartze pertsonalizatuek estatinekiko atxikidura hobetzen dute Espainiako ausazko saiakuntza kontrolatu batean	61
	1. Sarrera.....	63
	2. Metodoa.....	64
	3. Emaitzak.....	71
	4. Eztabaida.....	78
	5. Bibliografia.....	82
	6. Erreferentzia.....	86
2.	2. Kapitulua: Osasun profesionalaren esku-hartzeak estatinekiko atxikiduran duen eragina, atxikidura ezaren arrazoiak kontuan hartuta.....	92
	1. Sarrera.....	94
	2. Metodoa.....	95
	3. Emaitzak.....	97
	4. Eztabaida.....	99
	5. Bibliografia.....	101
	6. Erreferentzia.....	101
3.	3. Kapitulua: Komunitateko farmazialarien esku-hartzea lipido mailak jaisteko medikamentuen atxikidura hobetzeko eta honen erlazioa emaitza klinikoetan: berrikuspen sistematikoa eta meta-analisisa.....	103
	1. Sarrera.....	105
	2. Metodoa.....	106
	3. Emaitzak.....	110
	4. Eztabaida.....	125
	5. Bibliografia.....	129
	6. Erreferentzia.....	134

4. 4. Kapitulua: Medikamentuen arteko desadostasunak detektatzeko zerbitzua: diziiplina anitzeko ikuspegi kliniko errentagarria.....	135
1. Sarrera.....	137
2. Metodoa.....	138
3. Emaitzak.....	142
4. Eztabaida.....	146
5. Bibliografia.....	150
6. Erreferentzia.....	154

EZTABAIDA	155
------------------	------------

ONDORIOAK	169
------------------	------------

BIBLIOGRAFIA	171
---------------------	------------

ERANSKINAK	187
-------------------	------------

I. GLOSARIOA

ACTG	AIDS Clinical Trials Group
ADEOS	Adherence Evaluation of Osteoporosis Treatment
ANCOVA	Kobariantza analisisa
ANOVA	Bariantza analisisa
ARMS	Adherence to Refills and Medication Scale
ASRQ	Brief Adherence Self-Report Questionnaire
AUR	Appliance Use Review
BARS	Brief Adherence Rating Scale
BGBK	Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa
BMQ	Brief Medication Questionnaire
CGCOF	Farmazialarien Elkargo Ofizialetako Kontseilu Nagusia
CPCRA	Community Programs for Clinical Research on AIDS
CPCS	Community Pharmacist Consultation Service
CQR	Compliance-Questionnaire-Rheumatology
c-RCT	Cluster Randomized Controlled Trial
DRG	Diagnosis-related group
DSP	Dosifikazio sistema pertsonalizatua
ECHO	Economic, Clinical and Humanistic Outcomes
E-EH	Ez esku-hartze taldea
EH	Esku-hartze taldea
ESI	Erakunde Sanitario Integratua

FIP	International Pharmaceutical Federation
FNI	Frazier Noncompliance Inventory
Foro AF-FC	Komunitateko farmaziako Arreta Farmazeutikoko foroa
GIB	Giza Immunoeskasiaren Birus
GMI	Gorputz-masaren indizea
HR	Hazard Ratio
ICER	Kostu/eraginkortasun inkrementalaren erlazioa
ISPOR	Farmakoekonomiako eta Osasun Eraitzen Ikerketako Nazioarteko Sozietatea
ITAS	Immunosuppressive Therapy Adherence Scale
ITAS-M	Medication Immunosuppressive Therapy Adherence Scale
KF	Komunitateko farmazialaria
KT	Konfiantza tartea
LMAM	Lehen mailako arretako medikua
MAQ	Morisky Adherence Questionnaire
MDDS	Medication discrepancy detection service
ME	Medication error
MedMaIDE	Medication Management Instrument for Deficiencies in the Elderly
MOS	Medical Outcomes Study
MPR	Medication Possession Ratio
MS_TAQ	Multiple Sclerosis Treatment Adherence Questionnaire
MUR	Medicines Use Review

NHS	Osasun sistema britainiarra
OME	Osasunaren Mundu Erakundea
OR	Odds ratio
OTC	Over the counter
PDPCCR	Koloneko eta Ondesteko Minbiziaren detekzio Goiztiarreko Programa
PESBUM	Sendagaien Erabilera Onari buruzko Osasun Hezkuntzako Programa
PRISMA	Preferred Reporting Items for Systematic Reviews and Meta-Analyses
QALY	kalitatearen arabera doitutako bizitzako urteak
RCT	Randomized controlled trial
RUM	Sendagaien erabileraren berrikusketa
SAC	Stoma Appliance Customisation
SEA	sendagaiekin erlazionaturiko arazoak
SEFAC	Komunitateko eta familiako farmazialarien elkarte espainiarra
SEFH	Ospitaleko farmazialarien elkarte espainiarra
SEN	Sendagaiekin erlazionaturiko emaitza negatiboak
SEPAP	Lehen mailako arretako farmazialarien elkarte espainiarra
SERAD	Self-Reported Adherence Questionnaire
SMAQ	Simplified Medication Adherence Questionnaire
SNS	Osasun sistema nazionala
FZPA	Farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak
SRSI	Self-Rating Scale Item

Glosario

TRQ Tablets Routine Questionnaire

VAS Visual Analog Scale



1. FARMAZIA-ZERBITZU PROFESIONAL ASISTENTZIALAK (FZPA)

1.1 Zer dira FZPA

Farmazialariek, beren lanbide-arloa edozein dela ere, gero eta asistentzialagoa den eremu batean garatu dute beren lanbidea. 60ko hamarkadan aldaketa handia gertatu zen bilakaera horretan, farmazia klinikoa deitu zitzaionaren agerpenarekin, baina 1990era arte ez zuten Heplerrek eta Strandek farmazia-arretaren kontzeptua honela definitu: "farmakoterapiaren hornidura arduratsua, paziente bakoitzaren bizikalitatea hobetuko duten emaitza zehatzak lortzeko asmoz egiten dena da" (1). Definizio horren ondoren, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME), arreta farmazeutikoari zegokionean oinarrituta, farmazialariaren erantzukizunak zehaztu eta bateratu zituen "Tokioko Txostena" izenekoan (2). Gainera, zenbait erakundek, hala nola Ospitaleko Farmazialarien Amerikako Elkarteak, filosofia berean oinarrituta prozedurak jarraitu ahal izateko gomendioak argitaratu zituzten (3).


Nazio-mailan oztopo ugari egon ziren, eta horiek zaildu egin zuten farmazia-arretaren ezarpena; horien artean, adituek eta erakundeek eskainitako mezuetan zegoen batasun falta nabarmendu behar da. Hori dela eta, Elkargoetako Farmazia Erakundeak abian jarri zuen *Farmazia Arretarako Foroa* (Foroa). Lantalde hori Osasun Ministerioak, Farmazialarien Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak (CGCOF), Komunitateko Farmaziako (SEFAC), Lehen Mailako Arretako (SEFAP) eta Ospitaleko Farmaziako (SEFH) elkarte zientifikoek, Pharmaceutical Care España Fundazioak, Granadako Unibertsitateko Arreta Farmazeutikoko Ikerketa Taldeak eta Farmazia-Errege Akademiak osatzen dute, arreta farmazeutikoaren praktika nazio-mailan orokortzeko helburuarekin (4). 2008an, komunitateko farmaziarekin lotutako Foroko erakundeek ildo berean lan egitea beharrezkotzat jo zuten, baina berezita; hori dela eta, Komunitateko Farmaziako Arreta Farmazeutikoko Foroa (KF-AF Foroa) izeneko taldea sortu zen. KF-AF Foroaren helburu nagusia FZPAk ezartzen laguntzea zen. Ordutik hona, eta gaur egun arte, KF-AF Foroak proiektu eta zerbitzuetan homogeneotasuna mantentzeko lan egin du, horretarako adostutako terminologia erabiliz, FZPAen ezarpena babestuz eta taldeko erakundeen arteko lankidetzaren areagotuz. Gaur egun, ezinbesteko eragilea da arreta farmazeutikoaren arloan (5) eta

urte hauetan zehar argitaratu dituzten eskuliburuak erreferentzia izan dira estatu mailan lanbide osorako (6).

Esparru horretan, FK-AF Foroak (7) honela definitzen ditu FZPAk: "Komunitateko farmaziatik gaixotasunaren prebentziorako eta sendagaiak naiz osasun-produktuak erabiltzen dituzten pertsonen osasuna hobetzeko, bere gaitasun profesionalak erabiltzen dituen farmazialari batek ematen dituen osasun-jarduerak dira, eta eginkizun aktiboa betetzen dute erabilera-prozesua eta tratamenduen emaitzak optimizatzen. Jarduera horiek, osasun-sistemaren helburu orokorrekin bat datoz, berezko izaera dute, eta definizioa, helburuak, prozedurak eta dokumentazio-sistemak dituzte, haien ebaluazioa eta ordainsaria ahalbidetzen duten, haien unibertsaltasuna, jarraitutasuna eta iraunkortasuna bermatuz".

Definizio honek FZPAk honako ezaugarriak biltzen dituztela biltzen du: (i) osasun-jarduerak dira, (ii) farmaziatik ematen diren jarduerak dira, eta, beraz, komunitateko farmaziatik kanpo egiten direnak barne har ditzakete, (iii) farmazialari tituludun batek egiten ditu, (iv) gaixotasuna prebenitzera eta pazienteen osasuna hobetzera bideratuta daude, (v) gizakientzat zein animalientzat bideratuta daude, (vi) ezaugarri bereizgarriak dituzte, eta (vii) ordainduta egon beharko lukete jasangarritasuna bermatzeko.

Funtsean, pazientearen osasun-egoera hobetzera bideratutako jarduerak sustatzea da profesional sanitarioaren helburu nagusietako bat. Ildo horretan, egiaztatu da FZPAk ezarrita onurak lortzen direla gizartean, farmazialarien kolektiboan eta farmazialariaren beraren mailan, bai eta pazientearen beraren mailan ere (1. irudia).




1. irudia. Farmazia-zerbitzu profesional asistentzialen onurak (6).
SEA: Sendagaiekin erlazionatutako arazoak; SEN sendagaiekin lotutako emaitza negatiboak.

1.2. FZPAen sailkapena

Komunitateko farmaziaren eguneroko jardunean FZPAren definizioa homogeneizatzeko asmoz, KF-AF Foroak bi zerbitzu-mota hauek sailkatzea proposatzen du: arreta farmazeutikoko zerbitzuak eta komunitate-osasunarekin lotutakoak (2. irudia). Zerbitzu horiek guztiek honako baldintza hauek betetzen dituzte:

- (i) farmazia komunitariotik (komunitate farmaziatik) ematen dira,
- (ii) farmazialari batek egiten ditu edo haren ikuskaritzapean egiten dira,
- (iii) KFren eskumenekoak dira,
- (iv) osasun-sistemaren helburu orokorrekin lerrokatuta daude,
- (v) protokolizatua daude, eta, horrela, definizioa, helburuak, prozedura eta dokumentazioa aurkezten dituzte, ebaluatu eta ordaindu ahal izateko,

- (vi) zerbitzu unibertsalak, jarraituak eta iraunkorrak dira, eta
- (vii) gaixotasunari aurrea hartzeko balio dute, herritarren osasuna hobetzeko baliagarriak dira, edo osasun-produktuak hartzen dituztenen osasuna hobetzeko balio dute, eta/edo farmazialariak zeregin aktiboa du emaitzen erabilera- edo tratamendu-prozesua optimizatzeko.



2. irudia. Komunitateko farmaziako farmazia-zerbitzu profesional asistentzialen sailkapena (7).
GMI: Gorputz-masaren indizea.

Komunitateko farmazian FZPA desberdinak ezartzeari esker, herritarrei zerbitzu-zorro zabala eskaini ahal izan zaie, hau da, "*Osasun-jardueren multzo bat, beren artean independenteak, egitura, definizioa, helburuak, adostutako prozedurak eta dokumentazio-sistemak dituztenak, komunitateko farmaziaren barruan bertan lan egiten duten langileak garatzen dituztenak*" (8). Hala, jarduera horiek bereizi egingo dira herritarren osasunarekin eta/edo ongizatearekin zerikusia izan arren FZPATzat hartzeko irizpideak betetzen ez dituzten zerbitzuetatik. Horren adibide dira aholku dermofarmazeutikoa ematea edo dieta-planak egitea, besteak beste.

International Pharmaceutical Federation (FIP) eta OME bat datoz, dispentsazioaren egitate hutsean, KfK ez duela etorkizun profesionalik (9). Horregatik, farmazia-zerbitzuen zorro bat orokortzea, farmazia-praktika asistentzialaren bilakaerarako aukera bat da (8).

1.3 FZPAen ordainsaria

Komunitateko farmazian FZPAk erabat ezartzeko eta orokortzeko egungo erronka ordainsaria da; izan ere, jarduera batek errentagarritasunik sortzen ez badu, oso litekeena da etorkizun hurbilean zerbitzu hori ez eskaintzea (10). Zerbitzu bat ordaindua izan dadin, errentagarritasuna sortzen duela frogatu behar du, eta onura ekonomikoak sortzen dizkiola administrazioari; onura horrek zerbitzua ematen duenarentzat onuragarria, eta pazientearen osasun-egoera edo bizi-kalitatea hobetzen duela esan nahi du.

Ordainketa modua batera edo bestera egin daiteke, zerbitzuaren eta pertsona edo erakunde finantzatzailearen arabera: (i) Pazienteak zerbitzua osorik ordaintzen du, (ii) pazienteak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du eta administrazioak gainerakoa, edo (iii) administrazioak zerbitzua osorik ordaintzen du.

Estatuan, komunitateko farmaziak ematen duen zerbitzu nagusia medikamentuen dispentsazioa da. Sendagaiak, finantzatu gabeko batzuk izan ezik, Osasun Sistema Nazionalaren (OSN) eta pazientearen koordainketaren kontura finantzatzen dira; azken hori aldatu egiten da pazientearen adinaren eta diru-sarreraren arabera. Bestalde, komunitateko farmaziaren dispentsazioa ordaintzeko sistema medikamentuaren prezioaren arabera marjinan oinarritzen da. Komunitateko farmazian gauzatutako beste zerbitzu batzuk, eta administrazioak estatu mailan ordaintzen dituenak, 1. taulan jasotzen dira.

Metadona mantentzeko programa Espainiako komunitateko farmaziatan ezarritako lehen FZPA izan zen, zehazki 1995ean Euskal Autonomia Erkidegoan. Gaur egun, 10 autonomia-erkidegotako 22 probintzian ordaintzen da zerbitzu hori, eta ordainsaria pazienteko/hileko 54 €-tik 67 €-ra alda daiteke

Tuberkulosia zuzenean behatutako tratamendu-zerbitzua Valentziako Erkidegoko hiru probintzietan egiten da gaur egun. Beste erkidego batzuek, hala nola Euskal Autonomia Erkidegokoak, zerbitzu hori ordaindua izan dute, baina erabiltzaile/eskatzailek ez dagoenez, gaur egun ez da eskaintzen.

Giza immunoeskasiaren birusaren (GIB) test azkarra 5 autonomia-erkidegotako 18 probintzian egiten da. Administrazioak eta erabiltzaileak ordaintzen dute zerbitzu hori. Erkidegoaren arabera, egindako test bakoitzeko, erabiltzaileak 5-10 € ordaindu ditzake eta administrazioak 10-20 € ordainduko dizkio farmaziari. Asturiasko Printzerrian, administrazioak material-gastuak bakarrik ordaintzen ditu eta hondakinak erretiratzea kudeatzen du, baina ez dio zuzenean ordaintzen farmaziari; beraz, ez da kontuan hartu ordaindutako FZPA gisa.

Etzez etxeko laguntza-zerbitzua 2009tik dago jardunean Euskal Autonomia Erkidegoan, eta, gaur egun, Euskadiz gain, zerbitzu hori Soriako probintzian baino ez da eskaintzen, ordaindutako FZPA gisa. Soriaren kasuan, probintzia-aldundiak antzera ordaintzen dio paziente bakoitzeko farmaziari.

Katalunian, gaur egun, erkidego honetan bakarrik ordaintzen diren beste hiru FZPA daude: Kolon eta Ondesteko Minbiziaren detekzio Goiztiarreko Programa (PDPCCR)),

“Centinela” Farmazia Sarearen Programa eta Sendagaien Erabilera Onari buruzko Osasun Hezkuntzako Programa (PESBUM). Zerbitzu horietan administrazioak farmaziari ordaintzen dio jasotako eta bidalitako lagin bakoitzeko, urtean behin, zerbitzuaren eskaintza emateagatik edo farmazialari komunitarioak emandako saio bakoitzagatik, hurrenez hurren.

Azkenik, Nafarroako Foru Erkidegoan, 2019az geroztik, administrazioak farmaziari atzerriko sendagaiak emateko zerbitzuaren barruan egiten duen dispentsazio bakoitzeko ordaintzen dio farmaziari.

1. taula. Espainian administrazioek ordaindutako farmazia zerbitzu profesional asistentzialak.

ZERBITZUA	KOMUNITATEA	PROBINTZIA	ORDAINTZAILEA	ORDAINKETA	HASIERA
Metadona mantentzeko programa	Aragoi	Huesca	Administrazio autonomikoa	54,29 € /pazienteko / hilabeteko	1998
		Teruel			
		Zaragoza			
	Asturias, Printzerria	Asturias	Administrazio autonomikoa	66,75 € /pazienteko / hilabeteko	2007
	Balears, Illes	Balears, Illes	Administrazio autonomikoa	2,25 € /pazienteko /hilabeteko	1998
	Kanariak	Santa Cruz Tenerifekoa	Administrazio autonomikoa	1,89 € / pazienteko /hilabeteko	2002
	Gaztela Mantxa	Albacete	Administrazio autonomikoa	67 € /pazienteko / hilabeteko	1999
		Ciudad Real			
		Cuenca			
		Guadalajara			
		Toledo			
	Katalunia	Bartzelona	Administrazio autonomikoa	Pazienteko /hilabeteko diru kopuru jakin bat	1998
		Girona			
Lleida					
Tarragona					
Extremadura	Cáceres	Administrazio autonomikoa	50 € /pazienteko / hilabeteko	2015	
	Badajoz				
Murtziako eskualdea	Murtzia	Administrazio autonomikoa	50 € /pazienteko / hilabeteko	2001	
Nafarroako foru erkidegoa	Nafarroa	Administrazio autonomikoa	65 € /pazienteko / hilabeteko	1996	
Euskadi	Araba	Administrazio autonomikoa	58,14 € /pazienteko / hilabeteko	1995	
	Bizkaia				
	Gipuzkoa				

1. taula (jarraipena). Espainian administrazioek ordaindutako farmazia zerbitzu profesional asistentzialak

ZERBITZUA	KOMUNITATEA	PROBINTZIA	ORDAINTZAILEA	ORDAINKETA	HASIERA	
Tuberkulosia zuzenean behatutako zerbitzua	Valentziako Erkidegoa	Alacant	Administrazio autonomikoa	53,06€ / pazienteko / hilabeteko	2002	
		Castelló				
		Valentzia				
GIBaren test azkarra	Balears, Illes	Balears, Illes	Administrazio autonomikoa + erabiltzailea	Erabiltzailea: 5€ / test Administrazioa: 10€ / test	2013	
		Kantabria	Kantabria	Administrazio autonomikoa + erabiltzailea	Erabiltzailea: 5€ / test Administrazioa: 20€ / test	d.g.
	Gaztela- Leon		Ávila	Administrazio autonomikoa + erabiltzailea	Erabiltzailea: 5€ / test Administrazioa: 11€ / test	2010
			Burgos			
			León			
			Palentzia			
			Salamanca			
			Segovia			
			Soria			
	Valladolid					
	Zamora					
	Katalunia		Bartzelona	Administrazio autonomikoa + erabiltzailea	Erabiltzailea: 10€ / test Administrazioa: 8€ / test	2012
			Girona			
Lleida						
Tarragona						
Euskadi		Araba	Administrazio autonomikoa + erabiltzailea	Erabiltzailea: 5€ / test Administrazioa: 13,05€ / test	2009	
		Bizkaia				
		Gipuzkoa				

1. taula (jarraipena). Espainian administrazioek ordaindutako farmazia zerbitzu profesional asistentzialak.

ZERBITZUA	KOMUNITATEA	PROBINTZIA	ORDAINTZAILEA	ORDAINKETA	HASIERA
Etxez etxeko laguntza-zerbitzua	Gaztela Leon	Soria	Diputazio probintziala	6,5€ / paziente /asteko	2018
	Euskadi	Araba	Administrazio autonomikoa	31,63€ / pazienteko /hilabeteko	2009
		Bizkaia			
Kolon eta Ondesteko Minbiziaren detekzio Goiztiarreko Programa	Katalunia	Bartzelona	Administrazio autonomikoa	1 € / jaso eta bidaldutako lagin bakoitzeko	2012
		Girona			
		Lleida			
"Centinela" famazien sarea	Katalunia	Bartzelona	Administrazio autonomikoa + Kataluniako Elkargo Ofiziala	1000 € / urtean	2016
		Girona			
		Lleida			
		Tarragona			
Sendagaien Erabilera Onari buruzko Osasun Hezkuntzako Programa	Katalunia	Bartzelona	Administrazio autonomikoa	Administrazioa: farmazialariari ordainketa emandako saio bakoitzeko	2019
		Girona			
		Lleida			
		Tarragona			
Atzerriko sendagaien dispentsazioa	Nafarroako foru erkidegoa	Nafarroa	Administrazio autonomikoa	4€ / dispentsazioko	2019

d.g.: Daturik gabe

Ingalaterran, Australian, Zeelanda Berrian edo Kanadan FZPAren ordainsaria gero eta handiagoa da.

Ingalaterran adibidez, komunitateko farmaziaren finantzaketak, oinarrizko zerbitzuetarako estaldura-tasa bat, zerbitzu aurreratuengatik ordainsaria eta beste marjina batzuk ditu (11). Oinarrizko zerbitzuak farmazia guztiek eskaini behar dituztenak dira, eta aurreratuak, berriz, aukerakoak (12). Dispentsazioa funtsezko zerbitzu gisa onartzen da, eta dispentsazio bakoitzeko zenbateko ekonomiko finko bat ordaintzen da (13). Zerbitzu aurreratuaren barruan, ordainsaria zerbitzuaren araberakoa da: Medikamentuen erabileraren berrikustea (MUR), Gailuen erabileraren berrikustea (AUR), Estomen pertsonalizazioa (SAC), Gripearen kontrako txertoaren zerbitzua eta Komunitateko farmazialariaren kontsulta zerbitzua (CPCS) (14). Ordainketa guztiak Ingalaterrako Batuko Osasun Sistema Nazionalak (NHS) ordaintzen ditu.

Australian, sendagaiak emateaz gain, *Community Pharmacy Programs* izeneko programaren parte diren farmaziek Gobernu Federalaren ordainsaria jasotzen dute, sendagaien atxikidura programetan, sendagaien erabileran programetan, Torresko itsasarteko uharteetako pertsonentzako programa espezifikotetan, landa-laguntzako programetan eta osasun-programetan. Medikazioa berrikusteko eta immunizatzeke beste zerbitzu batzuk ere ordaintzen dira kasu batzuetan (12).

Zeelanda Berrian, barruti bakoitzeko Osasun Sailak ordaintzen dio farmaziari dispentsazio bakoitzeko. Dispentsazioaz gain, finantzatutako beste zerbitzu batzuk ere badaude, hala nola paziente kronikoentzako zerbitzua, antikoagulatzaileekin tratamenduak dituzten pazienteentzako jarraipen-zerbitzua, Sendagaien Erabileraren Berrikuspena (RUM), medikamentuen ebaluazioa, klopapina emateko zerbitzua, egoitzetako arreta-zerbitzuak eta opioideak batera dispentsatzeko zerbitzuak (11).


Kanadan, ordainsari-sistema desberdina da probintzia bakoitzaren jurisdikzioaren arabera, eta, beraz, zerbitzuen ordainketa ere desberdina da eskualde bakoitzean. Adibidez, eskualde gehienetan immunizazio-zerbitzuren bat ordaintzen da, baina horietako hirutan bakarrik finantzatzen da medikazioa berrikusteko zerbitzua (11).

1.4. Medikazio akatsak eta FZPA

Medikazio-akatsak honela definitzen dira: "*Sendagaia osasun-arloko profesionalaren, pazientearen edo kontsumitzailearen kontrolpean dagoen bitartean, pazienteari sendagaiak era desegokian erabiltzera bultza edo kalteak eragin diezaiokeen edozein gertaera prebenigarri*" (15). Akats horien agerpena aurrez ezartzen duten faktoreak lotuta egon daitezke osasuneko profesionalekin, pazienteekin, lan-ingurunearekin, sendagaiekin, sistema informatikoekin eta/edo lehen eta bigarren mailako arretako komunikazioarekin (16).

2000. urtean, Ruiz Jarabo eta kolaboratzaileen lantaldeak (17) kate terapeutikoan errore probabilitatea handiagoa duten 13 prozesu ikusi zituzten, hala nola: (i) asistentzia-trantsizioa, (ii) hautaketa eta eskuratzea, (iii) preskripzioa, (iv) transkripzioa, (v) baliozkotzea, (vi) farmazian prestaketa (vii) dispentsazioa, (viii) biltegiatzea, (ix) erizaintzako unitatean edo paziente zaintzaileak prestatzea, (x) erizaintzako unitatean edo paziente zaintzaileak administratzea, (xi) pazientearen monitorizazioa/tratamendua, (xii) pazientearen heziketa, eta (xiii) OTC medikamentu gisa ezagutzen diren *over the counter* medikamentuen automedikazioa/erabilera. Arazoa non egon denaren arabera, beste prozedura bat ezartzen da dagokion osasun-arduradunarekin.

Ospitale-eremura bideratutako sailkapen hori komunitateko farmaziaren sailkapenera egokitu daiteke, kate terapeutikoaren puntu kritikoak zehaztuz, non farmazialariak zeregin garrantzitsua duen prebentzioan eta identifikazioan eta medikazio-akatsak murriztean. Puntu horien artean, tratamenduaren berrikuspena eta monitorizazioa nabarmentzen dira (3. irudia).



3. irudia. Kate terapeutikoaren puntu kritikoak, non komunitateko farmazialariak esku har dezakeen medikazioaren akatsak prebenitzeko, identifikatzeko edo murrizteko.

FZPA desberdinak kate terapeutikoko puntu horietako bakoitzaren barruan sar daitezke, medikazioaren akatsak identifikatzen, gutxitzen edo prebenitzen laguntzen baitute (2. taula).

2. taula: Kate terapeutikoaren puntu kritikoetan inplikaturik dauden farmazia-zerbitzu profesional asistentzialak.

Kate terapeutikoaren puntu kritikoa	Inplikaturik dauden FZPA
Dispentsazioa	Dispentsazioa Maisu formulazioa
Tratamenduaren baliozketa edo berrikusketa	Medikamentuen desadostasunen identifikazioa Medikamentuen erabileraren berrikusketa Botika-kutxen berrikusketa Jarraipen farmakoterapeutikoa
Asistentzia trantsizioa	Medikazioaren kontziliazioa
Tratamenduaren monitorizazioa	Atxikidura terapeutikoa Jarraipen farmakoterapeutikoa Farmakozaintza
Pazienteentzako hezkuntza	Sendagaiei buruzko aholkularitza
Indikazioa	Indikazioa

FZPA: Farmazia-zerbitzu profesional asistentziala.

Gaur egun sendagaien kontsumoa handitzen ari denez, FZPAek pazienteen bizikaltatea hobetu dezakete, sendagaien erabilera seguruagoa, eraginkorragoa eta efizienteagoa bermatzera bideratuta baitaude (7).

Lan honek kate terapeutikoaren bi puntu ditu ardatz: (i) tratamenduaren baliozketa edo berrikustea, medikamentuen desadostasunak detektatzeko zerbitzuarekin, eta (ii) tratamendua monitorizazioa, atxikidura terapeutikoko zerbitzuarekin. Bi zerbitzuek lotura estua dute polimedikazioarekin; izan ere, agindutako medikamentu kopuru handi batek atxikidura terapeutiko egokia eragotz dezake, eta desadostasun gehiago sor ditzake pazienteak tratamendu aktiboaren orrian agindutakoaren eta benetan hartzen duenaren artean. Gainera, bi zerbitzu horiek medikazioa behar bezala hartzearekin lotuta daude. Atxikidura terapeutikoko zerbitzuaren helburua, sendagaia agindutako posologiaren arabera hartzea da; aldiz, desadostasunak detektatzeko zerbitzuaren helburua, pazienteak preskribatuta dituen sendagaien eta benetan hartzen dituenen artean desberdintasunik ez egotea da.


2. ATXIKIDURA TERPAEUTIKOA

2.1. Definizioa eta terminologia

Atxikidura honela definitzen da: "*Medikazioa hartzeari, dieta baten jarraipenari edo bizi-ohiturak aldatzeari dagokionean, osasun-profesionalarekin adostutako gomendioak eta pazientearen jokabideak duten bat izate maila*" (18). 2003. urteko OMEren definizio hori Haynes eta Sackettek (19) eta Randek (20) egindako aurreko proposamenen oinarritzen da, betetze terminoari dagokionez, eta OMEren 2001eko ekaineko atxikidurari buruzko bileran parte hartu zutenek adostutako definizioa eguneratzen du. Bertan, atxikidura honela definitzea erabaki zen: "Pazienteak jarraibide medikoak betetzen dituen neurria" (21).

Farmakoekonomiaren eta Osasun Eraitzen Ikerketaren Nazioarteko Elkarteak (ISPOR) atxikidura eta betetze terminoak sinonimo gisa definitu arren, biek ñabardura desberdina dute. Betetze terminoa pazientearen obediencia- eta mendetasun-ikuspegiarekin lotuta dago; atxikidura terminoak, berriz, pazientearen adostasuna eta pazientearen eta profesional sanitarioaren arteko lankidetzak aktiboa hartzen dituen kontuan (22,23). Horregatik, dokumentu honetan atxikidura terminoa baino ez da erabiliko, betiere medikazioari atxikitzeari buruzkoa, hau da, pazienteek medikamentu bakoitza agindutakoaren arabera hartzeko prozesua (24).

Atxikiduraz gain, iraunkortasuna ere kontuan hartu behar da, paziente batek sendagaia behar bezala zenbat denboraz hartzen duen, hau da, "*Paziente baten tratamendua hasten denetik amaitzen den arte igarotzen den denbora*" (25) (4. irudia).



4. irudia. Atxikiduraren eta iraunkortasunaren irudikapen grafikoa (26).

2.2. Atxikidurarik eza, osasun publikoko arazoa

Biztanleriaren zahartzeak, sedentarismoak eta bizi-ohitura ez-osasungarriek gaixotasun kronikoak areagotzen ditu mundu osoan, batez ere herrialde garatuetan. Gaur egun, helduen erdiak baino gehiagok eta haurren % 10ek inguru diagnostikatutako gaixotasun kronikoa du (27). Gaixotasun kroniko nagusiak, gaixotasun ez transmitigarriak ere deituak, gaixotasun kardiobaskularrak, arnas gaixotasun kronikoak, minbizia eta diabetesa dira (28). Tratamendu farmakologikoa da paziente kronikoen estrategia terapeutiko nagusia; hala ere, kalkulatzen da patologia kronikoak dituzten pazienteen % 50ek ez dutela tratamendu farmakologikoa behar bezala jarraitzen. Gaur egun, tratamendu farmakologikoarekiko atxikidurarik eza osasun publikoko arazo handia da, eta osasun-sistemek jorratu beharreko erronka handia (18).

Atxikidurarik eza hainbat modutan ager daiteke (24):

- Berandu hasi: Medikuak preskribatu ondoren, tratamenduaren hasiera atzeratu egiten denean.
- Hasierarik gabea: pazientea tratamenduarekin hasi ere egiten ez denean.
- Ezarpen azpi-optimoa: tratamendua agindutako modu berean hartzen ez denean.
- Aldez aurretik uztea; pazienteak tratamendua amaitu baino lehen eteten duenean.

Aurkezten den modua edozein dela ere, tratamendu farmakologikoekiko atxikidura ezak ondorio kliniko, ekonomiko eta humanistikoak ditu (5. irudia).



5. irudia: Atxikidura-faltaren ondorio klinikoak, ekonomikoak eta sozialak.

Maila **klinikoan**, atxikidurarik eza hertsiki lotuta dago porrot terapeutikoarekin; izan ere, sendagaiaren eraginkortasuna arriskuan jartzen da agindutako posologiaren arabera hartzen ez denean, eta, ondorioz, pazientearen osasunean eragin negatiboa du (24). Ondorio kliniko horiek, hala ere, sendagai motaren, atxikidurarik ezaren mailaren edo eraginkortasunaren arabera dira, besteak beste. Gainera, frogatu da fenomeno horrek pertsonen bizi-kalitatean eta -itxaropenean eragiten duela, tratamenduen segurtasun-profila gutxituz eta ospitaleratzeen eta heriotza-tasaren arriskua areagotuz. Kalkuluen arabera, atxikidura faltagatik ospitaleratzeen % 4,3 eta 125.000 pertsona hiltzen dira urtean mundu osoan. Zenbait azterlanek erakusten dutenez, atxikidura-ezarekin lotutako arazo horien ehuneko handi bat gaixotasun kardiobaskularretan erabilitako tratamendu farmakologikoekin bat zetozen, gehienak atxikiduraren kontrol egokiarekin prebeni daitezkeenak (29,30).


Arestian aipatutako guztiari gehitu behar zaio atxikidura ezak eragin **ekonomiko** handia duela osasun-sistemetan. Ondorio ekonomikoak osasun-arazoetatik edo tratamendu farmakologikoarekiko atxikidurarik ezarekin lotutako konplikazioetatik eratortzen dira, eta tratamendua behar bezala jarraituz saihestu zitezkeenak. Osasun-baliabide horien kontsumoa munduko osasun-gastuaren % 4,6 da (31). Azken datuen arabera, atxikidura ezaren urteko kostu ekonomikoa, gaixotasunagatik eta pertsonagatik doitu, 949 eta 44.190 dolar artekoa da mundu mailan (32). Hala, Markov eredua erabiliz, atxikidura ezaren ondoriozko eragin sanitario eta ekonomikoa balioestea du helburu nagusitzat duen azterlan batek ondorioztatzen du, adibidez, gaixotasun kardiobaskularren kasuan, atxikidura % 10 igotzeak 8.700 heriotza eta 7.650 gertakari kardiobaskular saihestuko lituzkela, osasun-gastua 75 milioi euro aurrezteaz gain (33).

Atxikidurarik ezak ondorio **humanistiko edo sozialak** ere baditu, isolamendua adibidez, eta gehiago nabarmentzen dira karga sozial handia duten gaixotasunetan, hala nola gaixotasun mentaletan edo GIBean, besteak beste. Gainera, atxikidura-falta lan-absentismoarekin lotuta dago, eta, ondorioz, produktibitatea gutxitzearekin (34).

Etorkizun ez oso urrunari begira, nabarmentzekoa da kostu ekonomikoak, klinikoak eta humanistikoak handitzen jarraituko dutela gaixotasun kronikoek eta, horrekin batera, atxikitzen ez diren pazienteen tasak gora egin ahala.

2.3. Atxikidurarik ezaren arrazoiak eta faktoreak

Atxikidura dimentsio anitzeko fenomeno da, bost faktore-multzok zehazten dutena: faktore sozial eta ekonomikoak, osasun-sistemeekin lotutakoak, gaixotasunarekin lotutakoak, tratamenduarekin lotutakoak eta pazientearekin lotutakoak (6. irudia).



6. irudia. Tratamenduarekiko atxikiduran eragina duten faktoreak (18).

Alderdi sozioekonomikoaren barruan, pobrezia, hezkuntza-maila baxuak, langabeziak, gizarte-laguntza eraginkorrik ezak, bizi-baldintza ezegonkorak, osasun-zentrorako distantzia luzeak edo medikazioaren kostu handiak eragin negatiboa dute pazientearen tratamenduarekiko atxikiduran (18). Oraintsuko azterlanen arabera, gutxiengo etniko batekoa izatea atxikidura txikiagoarekin lotuta egon daiteke; aldiz, badirudi finantza-estatus handiagoak eta posizio sozioekonomiko hobea izateak eragin positiboa dutela (35). Gainera, arraza, askotan, sinesmen kulturekin lotzen da, eta adina, atxikiduran eragiten duen beste faktore bat da (18). Horregatik, atxikidura pazientearen adin-taldearen arabera aztertzea gomendatzen da (gurasoen mendeko haurrak, nerabeak, helduak edo adineko pazienteak). Generoa ere deskribatu den beste faktore bat da, atxikiduran eragina izan dezakena, eta egiaztatu da emakumeek eta gizonak portaera-eredu desberdinak dituztela eta atxikitzaileak ez izateko arrazoi desberdinak dituztela (36).

Osasun-sistemari dagokionez, garapenean akatsak edo erroreak dituzten osasun-zerbitzuek, sendagai eskasak banatzeko sistemek, osasun-profesionalen eta

pazientearen arteko konfiantzarik ezak, botikak hartzeko premiaren pertzepzio ezak eta medikazioari buruzko kezkek zeregin garrantzitsua betetzen dute tratamenduarekiko atxikidura-ezan (18). Garrantzitsua da osasun-arloko profesionala modu aktiboan inplikatzeari pazientearen gaixotasunean; izan ere, pazienteak bere medikuak edo KfK abandonatu duela hautematea, atxikiduran eragin handiena duen faktoreetakoa bat da (37). Gainera, pazienteek oso positibotzat jotzen dute osasun-profesionalen arteko komunikazioa, baina indartu beharreko alderdia dela uste dute (38).

Gaixotasunari dagokionez, sintomen larritasuna, gaixotasunaren ondoriozko desgaitasun-maila, aurrerapena edo dauden tratamenduen eraginkortasuna dira atxikiduran eragina duten faktoreak (18). Patologia kronikoek atxikidurarik ezaren maila handiagoa dute patologia akutuek baino (39). Atxikidura falta nabarmena dago depresioa (% 72), biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (EPOC) (% 59) edo gaixotasun kardiobaskularrak (% 48) dituzten pazienteen artean. Aldiz, minbizia bezalako patologietan edo GIB bidezko gaixotasunean, atxikidura-maila altua da, % 70etik gorakoa (33). Horregatik, azken urteotan, ikerketa-talde askok tratamendu kronikoarekiko atxikidurarik eza aztertu dute, eta hura hobetzea lortuko duten esku hartzeko estrategiak diseinatu dituzte (32,39-41).

Tratamendu farmakologikoari lotutako hainbat faktore daude, atxikidurari eragiten diotenak; bereizgarrienak erregimen posologikoaren konplexutasunarekin, tratamenduaren iraupenarekin, aurretiazko tratamenduen eraginkortasunarekin, tratamenduan maiz gertatzen diren aldaketekin eta albo-ondorioekin lotutakoak dira (42). Polimedikazioa atxikidura-faltari lotutako fenomeno nagusietako bat da; izan ere, agindutako tratamenduaren konplexutasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa da tratamendua behar bezala ez jarraitzeko probabilitatea.

Azken urteetan egiaztatu da, kasu gehienetan, pazienteak dela tratamendua behar bezala ez ematearen erantzule bakarra. Askotan, portaera- eta jokabide-arazoen ondorioz, pertsona ez da gai izaten tratamenduari atxikitzeko. Horregatik, **pazientearekin** lotutako faktoreen artean (6. irudia), pazienteak tratamenduari, baliabideei, ezagutzei eta sinesmenei buruz dituen pertzepzioak eta itxaropenak sartzen dira. Paziente batek medikazio bat modu egokian hartzeko duen motibazioak

eragina du jarraibidea jarraitzeko duen interesean eta jarraitu ahal izateko duen konfiantza-mailan (43).

2.4. *Atxikidura-ezaren sailkapena*

Atxikidura ezaren mota kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsua da esku-hartze egokiena aukeratzekoan, planteatutako estrategia desberdina izango baita kasu batean zein bestean. Atxikidurarik eza era desberdinean sailkatu daiteke erabiltzen den irizpidearen arabera (23).


- Intentzionalitatearen arabera:
 - Nahitako atxikidura eza: egoera horretan, pazienteak, bere borondatez eta kontzienteki, sendagaia ez hartzea erabakitzen du, sinesmen eta portaera jakin batzuen ondorioz. Erlazio hori azaltzen duten hainbat esparru teoriko daude: hautemandako beharraren eta kezken eredua (44), osasun-sinesmenak (45), informazioa-motibazioa-estrategia (46), aldaketarako eredu transteorikoa (46) eta motibazio-elkarrizketa (47).
 - Nahigabeko atxikidura eza: egoera horretan pazienteak ez da ohartzen sendagaia ez duela hartzen edo ez duela behar bezala hartzen. Atxikidura-falta horren kausak pazientearekin, tratamenduarekin edo osasun-sistemearekin lotuta egon daitezke (48), eta ohikoenak ahaztea, pazientearen autonomiarik eza edo tratamenduen konplexutasuna dira.
- Behin-behinekotasunaren arabera:
 - Lehen mailakoa: medikuak agindu ondoren pazienteak sendagaia jasotzera ere iristen ez den egoera da.
 - Bigarren mailakoa: pazienteak, sendagaia jaso ondoren, ezarritako jarraibideak betetzen ez dituen egoera da.
- Jarraipen-aldiaren arabera:
 - Ez-betetze partziala: pazienteak une jakin batzuetan tratamenduari atxikitzen zaion egoera da.

- Ez-betetze sekuentziala: pazientea aldi batzuetan atxikitzen den egoera da.
- Bata zuria betetzea: pazientea, medikuaren bisita hurbil duenean, atxikidura egokia eramaten duen egoera da.
- Ez-betetze osoa: pazienteak tratamendua modu mugagabeaz uzten duen egoera da.

2.5. *Atxikidura neurtzeko sistema*

Atxikidura neurtzeko metodo idealak, azkarra, fidagarria, sentikorra, espezifikoa, merkea eta erreproduzigarria izan beharko luke. Hala ere, ohiko metodoetako batek ere ez ditu ezaugarri horiek guztiak betetzen, eta, beraz, une bakoitzerako tresnarik edo tresna-konbinaziorik onena aukeratu behar da, eta horietako bakoitzaren mugak kontuan hartu, ondorioak interpretatzeko garaian.

Tratamendu batekiko atxikidura zuzeneko edo zeharkako metodoen bidez neur daiteke (33). Metodo zuzenak farmako batek gorputzeko jariakinetan (odola eta gernua, normalean) duen kontzentrazioa zehazten dutenak dira, edo medikamentuaren hartzea zuzenean behatzean oinarritzen direnak. Zeharkako metodoak, izenak berak dioten bezala, medikamentua hartzea, hainbat tresna erabiliz estimatzen dutenak dira, hala nola galdetegiak. Metodo horiek guztiek zehaztasun desberdina dute, eta, dituzten abantaila eta desabantailengatik, erabilera-maiztasun desberdina ere badute (7. irudia).



7. **irudia.** Atxikidura-metodoak erabileraren zehaztasunaren eta maiztasunaren arabera sailkatzea. Bakoitzaren abantailak eta desabantailak (33,49).

Plasma edo gernuan determinatzeko metodoa fluido horietan farmako edo metabolito kontzentrazioa zehaztean oinarritzen da. Nahiz eta desabantaila garrantzitsuak izan, hala nola kostu handia, osasun-arloko langileen eta berariazko tresnen beharra edo lortutako emaitzak alderatzeko populazio-azterketa farmakozinetikoen eskasia, oso erabilgarria izan daiteke sendagai jakin batzuetan (adibidez, immunoezabatzaileak) edo toxikotasun- eta interakzio-egoeretan (33,49).

Hartualdiaren behaketa, pazienteak medikazioa hartzen duela zuzenean eta aurrez aurre gainbegiratzean oinarritzen da. Metodo horren arazo nagusia pertsona batek pazientearen hartualdi guztiak gainbegiratu behar dituela da, eta hori agian ez da bideragarria esparru guztietan. Hori ohikoa da egoitzetan eta/edo ospitaleetan, baina ez da baztertu behar pazienteak medikazioa ikuskatzailearen aurrean ezkutatu dezakeela (33,49).

Gailu elektronikoak ontzien irekiera kontrolatzen duten sistema informatizatuak dira. Irekitze horren unea ere erregistratzen dute, posologia betetzen dela hobeto kontrolatzeko. Datuen interpretazio-alborapenak minimizatzeke, gailua gaizki erabiltzeagatik (adibidez, irekiera berean dosi bat baino gehiago ateratzea), kontuan eramaten dituen eguneroko batean betetzen dira (33,49).

Dispentsazio erregistroen erabilerak gora egin du azken urteotan, batez ere errezeta elektronikoa estatuko farmazia guztietan ezarri zenetik. Posologiaren arabera, paziente bati kutxa batek zenbat irauten dion kuantifikatzean oinarritzen da, eta datu hori medikamentuak jasotzeko datekin gurutzatzean. Metodo hori nahiko ekonomikoa da, eta farmazialariari edo medikuari atxikidurari buruzko jarraipena egiteko aukera ematen dio, errutinaz eta informatikoki (33,49).

Sendagaien zenbaketaren oinarria pazienteak farmaziara itzultzen dituen sendagaien kopurua da. Pazientea atxikitzailetzat hartzeko, itzultitako medikamentuen kantitateak posologiaren arabera kalkulatuak medikamentu teorikoekin bat etorri beharko luke. Dosifikazio-sistema pertsonalizatuari (DSP) esker, zenbaketa hori azkar eta eraginkortasunez egin daiteke (33,49).

Bestalde, galdetegiak dira atxikidura neurtzeko gehien erabiltzen diren metodoak. Galdetegi bakoitzak bere berezitasunak izan ditzakeen arren, gehienek pazienteak erantzun beharreko medikazioa hartzeari buruzko galdera batzuk dituzte. Erantzunen arabera, tratamenduari atxikidura duela edo atxikidura falta zaiola ulertuko da. Gainera, egindako hartuneen arabera ere atxikidura kuantifikatu daiteke. Galdetegi asko daude, eta, beraz, oso garrantzitsua da erabili beharreko galdetegi gaixotasunean eta azterlanaren xede-populazioan balidatuta egotea (3. taula).

3. taula. Atxikidura-galdetegiak patologiararen arabera (50).

Gaixotasuna	Galdetegia	Item kopurua
Asma	Four Item Questionnaire for Asthma Inhaler Adherence (51)	4 item
	Pediatric Inhaler Adherence Questionnaire (52)	6 item
Esklerosi anizkoitza	Multiple Sclerosis Treatment Adherence Questionnaire (MS_TAQ) (53)	30 item (hiru taldeetan: Oztopoak, Bigarren mailako ondorioak eta Aurre egiteko estrategiak)
Hemofilia	Hemophilia Regimen Treatment Adherence Scale (54)	24 item
Hipertentsioa	Brief Adherence Self-Report Questionnaire (ASRQ) (55)	6 item
	Hill-Bone Compliance to high blood pressure therapy scale (56)	14 item (hiru eskala sodioa murrizteko, hitzorduak izateko eta botikak hartzeko)
	Voils Measure of Extent and Reasons for Medication Non-Adherence (57)	3 item atxikidura gradurako eta 21 kausentzako
Inmunogutxitzea	Frazier Noncompliance Inventory (FNI) (58)	11 item
	Immunosuppressive Therapy Adherence Scale (ITAS) (59)	5 item
	Medication Immunosuppressive Therapy Adherence Scale (ITAS-M) (60)	4 item
Osteoporosia	Adherence Evaluation of Osteoporosis Treatment (ADEOS-12) (61)	12 item
Reumatologia	Compliance-Questionnaire-Rheumatology (CQR) (62)	19 item
Osasun mentala	Brief Adherence Rating Scale (BARS) (63)	4 item
	Tablets Routine Questionnaire (TRQ) (64)	2 item medikazioa hartzeko zailtasunei buruz + 4 ahaztutako dosiei buruz

3. taula (jarraipena): Atxikidura-galdetegiak patologiaren arabera (50).

	AIDS Clinical Trials Group (ACTG) Adherence Questionnaire (65)	1-5 item
	Community Programs for Clinical Research on AIDS (CPCRA) Antiretroviral Medication Self-Report (66)	3 edo 7 eguneko sendagaia berreskuratzea eta galdutako dosi antirretrobiraletarako 10 arrazoi posible
	Self-Rating Scale Item (SRSI) (67)	Item1
GIB / Hiesa	Self-Reported Adherence Questionnaire (SERAD) (68)	Hiru osagai (bigarren zatian 13 elementuko sekzio bat dago, atxikidura-ezagatik)
	Self-Reported Questionnaire Assessing Adherence to Antiretroviral Medication (69)	
	Simplified Medication Adherence Questionnaire (SMAQ) (70)	
	Visual Analog Scale (VAS) (71)	Item 1 (pazienteak eskala batean bere atxikidura maila markatzen du)
Orokorrak	Morisky Adherence Questionnaire 4 item (MAQ) (72)	4 item
	Morisky Adherence Questionnaire 8 item (MAQ) (73)	8 item
	Adherence Estimator (74)	3 item
	Adherence to Refills and Medication Scale (ARMS) (75)	12 item
	Brief Medication Questionnaire (BMQ) (76)	9 item
	Medical Outcomes Study (MOS) (77)	5 item
	Medication Management Instrument for Deficiencies in the Elderly (MedMalDE) (78)	20 item
	Medical Adherence Measure (79)	Elkarrizketa erdi-egituratua

2.6. Atxikidura hobetzeari buruz argitaratutako azterlanak

Atxikidurarik eza aspalditik aztertu den arazoa da. Denbora horretan, hainbat esku-hartze proposatu dira emaitzak hobetzeko. Hala ere, atxikidura ikertzeko zailtasunak daude, bai sendagaien, gaixotasunen edo pazienteen artean dagoen

aldakortasunagatik, bai neurketa-metodoak ez direlako egokienak, eta, horregatik, gaur egun ez dago erabat finkatutako prozedurarik.

Badirudi askotariko esku-hartzeek eragin handiagoa dutela atxikiduraren hobekuntzan, ziur asko kontrolgune ugari daudelako sendagai baten preskripzioaren eta hura hartzearen artean. Esku-hartzea alde batera utzita, funtsezko hiru elementu horiek guztiek komunak izan behar dute (80): (i) osasun-arloko profesional, paziente eta/edo zaintzaile guztien arteko komunikazio eraginkorra, (ii) ahal den neurrian medikamentuak behar bezala hartzeko erraztasunak ematea, estrategia zehatzak erabiliz, hala nola jarraibide posologiko errazak, medikamentuak hartzeko berrikuspenak, DSPen erabilera, oroigarriak erabiltzea etab., eta (iii) osasun-arloko langileen ahalegina eta iraunkortasuna izanik, egoera etengabe berrikusiz.

Farmaziak, eta, beraz, KfK, leku pribilegiatua du, eta funtsezko eginkizuna betetzen dute gertakarien sekuentzia osoan, pazienteen atxikiduraren kontrol-maila hobetzeko.

Estatuan, hainbat ikerketa egin dira komunitateko farmazian, tratamenduarekiko atxikidura sustatzeko. Azterlan horiek guztiek ondorioztatu dute komunitateko farmazia oso osasun-establezimendu egokia dela pazienteen atxikidura hobetzeko zerbitzu eraginkorra eta kalitatezkoa eskainiz (81-87). Fikri-Benbrahim eta kolaboratzaileek (81) 2016an, 6 hilabeteko ikerketa bat egin zuten Espainiako 13 komunitateko farmaziatan eta ondorioztatu zuten, ohiko jardunarekin alderatuta, hezkuntza bidezko esku-hartzeak areagotu egiten duela tratamendu antihipertentsiboa duten pazienteen atxikidura. CGCOFek "AdherenciaMED" proiektua jarri zuen martxan, atxikidura terapeutikoa hobetzera bideratutako zerbitzu baten eragin klinikoa, ekonomikoa eta soziala diseinatu eta ebaluatzeko asmoz (82). Fase pilotuan, 2017ko urritik 2018ko apirilera bitartean, ondorioztatu zen farmazialariaren esku-hartzea eraginkorra dela, atxikidura terapeutikoko zerbitzuaren bidez; izan ere, atxikidura zuten pazienteen kopurua handitu eta sendagaien erabilera hobetu zen, eta horrek guztiak eragin positiboa izan zuen gaixotasunen kontrol klinikoan eta pazienteen bizi-kalitatean. Gainera, zerbitzua kostu-efektibotzat jo zen, izan ere, 6 hilabeteetan, paziente bakoitzean inbertitutako euro bakoitzeko 38 euroko irabazi garbia lortu zen eta. Bestalde, Machuca eta

kolaboratzaileek (83) antibiotiko baten preskripzio duten pazienteengan egindako azterlan esperimental batean ikusi zuten KFren informazioa idatziz jasotzen zuten pazienteek atxikidura hobea erakusten zutela, ahoz ematen zitzaienekin alderatuta.

Azkenik, komunitateko farmaziatan egindako zenbait azterlanek DSPk tratamenduarekiko atxikidura areagotzeko duen eraginkortasuna bermatzen dute (84-86). CGCOFek bultzatutako "Adhiérete" programaren bidez, adineko paziente kroniko, polimedikatu eta atxikidura eza zutenek, tratamenduekiko zuten atxikidura hobetzeko helburu nagusiarekin, egiaztatu zen tresna hori eta aplikazio mugikorrek bezalako gogorazteko sistemak erabiltzeak % 40,7 handitzen duela tratamenduekiko atxikidura, farmazialariaren esku-hartzearen ondoren, eta bizikaltatea batez beste 5,5 puntutan hobetzen dutela, sendagaiekin lotutako arazoak % 33,4 murrizteaz gain (87).

2.7. Hiperkolesterolemiaren tratamenduan estatinekiko atxikidurak duen garrantzia

Polimedikazioa, tratamendu-jarraibide konplikatuak edo sendagaiaren kontrako erreakzioak	Medikamentuarekin erlazionatutakoa	- Medikoarengana bideratzea dosia doitzeko edo tratamendua aldatzeko. - Tratamenduari eta tratamenduaren onurei buruzko ahozko eta idatzizko informazio estandarizatua ematea.
Arrazoi kulturalak edo sinesmenak	Kulturala	- Medikoarengana bideratzea tratamendua aldatzeko
Sendagai generikoen eraginkortasunari buruzko zalantzak, osasun-profesionalen informazio kontraesankorra edo osasun-sisteman sartzeko zailtasunak	Egiturazkoa	- Sendagai generikoei buruzko ahozko eta idatzizko informazio estandarizatua ematea. - Farmazialari, mediku eta familiako kideen arteko komunikazioa sustatzea.
Medikamentuen kostua	Ekonomikoa	- Sendagaien ordainketa murrizteko aukerak aztertzea.

Ikerketa hasi eta 3 eta 6 hilabetera, estrategia bakoitzaren eraginkortasuna aztertu zen. Farmaziara edo LMAMren kontsultara egindako bisitan, 3 hilabetera, atxikidura ebaluatu zen; azken bisitan (6 hilabete), berriz, atxikiduraz gain, kolesterol mailak aztertu ziren, eta pazienteen elikadura-ohituretan eta ariketa fisikoan aldaketak baloratu ziren (2. irudia).



2. irudia. Ikerketaren garapen orokorra.

Ikerketan parte hartu zuten pertsona guztiek baimen informatua sinatu zuten, esku-hartzea hasi aurretik, 1. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Aldi berean, programaren protokoloari eta bisita bakoitzean egin beharreko jardueri buruzko informazio zehatza jasotzen zuen orri bat eman zitzaien idatziz. Parte hartu zuten 10 autonomia-erkidegoetako Medikamentuen gaineko Ikerkuntzako Batzorde Etikoko onartu zuten ikerketa,

% 80 ko potentziarekin eta 0,05eko p estatistikoaren balioarekin, atxikiduran % 50-65eko hobekuntza detektatzeko, talde bakoitzeko 160 paziente behar zirela kalkulatu zen. Atxikidura eza bezala sailkatutako pazienteak ausaz esleitu ziren EH eta E-EH taldeetan, 1 eta 1 arteko banaketa mantenduz, lehen aipatu bezala.

Emaitzen analisi estatistikoa SPSS programaren bidez egin zen (18. bertsioa: Windows XP Microsoft, USA). Emaitza guztiak *intention-to-treat* metodoan oinarrituta analizatu ziren. Lehenik eta behin, Kolmogorov-Smirnov eta Shapiro-Wilk probak egin ziren, datuak banaketa normalera nola egokitzen zirela ebaluatzeko. Aldagai kliniko parametrikoen aldaketak aztertzeko, lagin pareatuen edo lagin independenteen t Student testa, faktore baten ANOVA erabili ziren; aldagaien banaketa-maiztasuna

aztertzeko Txi karratuaren proba, kobariantza-analisia (ANCOVA), kolesterol-kontzentrazioen aldaketetarako, eta hasierako balioekiko doikuntzarako erregresio anplearen analisia. Osasun-profesionalaren esku-hartzea kolesterol-mailetan erregresio logistiko bitarraren analisiaren bitartez egin zen. Datuak aldagai kategorikoetarako zenbaki eta ehuneko gisa aurkeztu ziren, eta, aldagai jarraituetarako, batez besteko \pm desbideratze estandar gisa.

2.2. Berrikuspen sistematikoa eta meta-analisia

Hurrengo ikerketa, tesi honetan aurkeztutako hirugarren artikuluko zientifikoan islatua, argitaratutako saiakuntza klinikoetarako buruzko literatura zientifikoaren berrikuspen sistematiko batean zetzan. Saiakuntza kliniko horiek KFrren esku-hartzeak tratamendu hipolipemiatzailearekiko atxikiduran duen eraginaren ebaluazioan eta aldagai kliniko jakin batzuekin duen erlazioan oinarritzen ziren. Berrikuspen hori osatzeko, berrikuspenean aztertutako ikerketen meta-analisia egin zen (3. irudia).



3. irudia. Berrikuspen sistematikoaren fluxugrama.

Bilaketa MeSH eta Emtree terminoak erabiliz egin zen, haren egokitasuna bermatzeko, Medline, Cochrane Library, Science Direct, Scopus eta Web of Knowledge datu-baseen bidez, 2019ko abendua baino lehenagoko argitalpen guztiak kontuan hartuta. Bazterketa-irizpideei dagokienez, ez ziren kontuan hartu ikerketa hauek: (i) hiperkolesterolemiarako tratamenduan zeuden pertsonak edo medikamentu hipolipemiatzaileak hartzen ez zituztenak, (ii) atxikidura hobetzea helburu ez zutenak, (iii) atxikidura zehazten ez zutenak, (iv) esku-hartzea KfK ematen ez zuenak, (v) beste aldagai klinikorik aztertzen ez zutenak eta (vi) ikerketa pilotuak, berrikuspen sistematikoak, meta-analisiak, hitzaldien laburpenak, doktorego-tesiak edo iritzi-artikuluak. Protokoloa Prisma (Preferred Reporting Items for Systematic Reviews and Meta-Analyses) irizpideen arabera erregistratu eta egin zen (3). Bildutako artikulu guztiak erreferentzia-kudeatzaile batean inportatu ziren (Mendeley).

Jarraian, bi autoreek berrikuspenerako garrantzitsuak izan zitezkeen artikuluak aukeratu zituzten, modu independentean, ezarritako irizpideen arabera, eta hirugarren autore batek ebatzi zituen aurkitutako desadostasunak. Azkenik, artikulu bakoitzaren daturik garrantzitsuenak taula batean bildu ziren. Alborapen-arriskua *Cochrane Risk of Bias* (ROB 2.0) tresna erabiliz ebaluatu zen.

Azkenik, emaitzak batezbesteko eta desbideratze estandar gisa aurkeztu ziren. Aldagai dikotomikoen arteko erlazioa odds ratioaren (OR) estimazioaren bidez ezarri zen, % 95eko konfiantza-tarteekin. Datuak nahikotzat eta homogeneotzat jo zirenean, meta-analisi bat egin zen Review Manager V.5.3 (RevMan 5) (4) programarekin, alderantzizko bariantza metodoa eta ausazko efektuen eredia erabiliz.


2.3. Medikazioaren desadostasunen ikerketa

Laugarren artikulu zientifikoa azterlan esperimental bat izan zen, kontrol-talderik gabea, komunitateko 10 farmazietan eta Bidasoako Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) 2 osasun-zentroetan egina, 2015eko urritik 2016ko irailera bitartean. Ikerketa horren helburua medikazioan desadostasunak hautemateko zerbitzu batek

medikamentuen kopuruan eta zerbitzuaren kostu-eraginkortasunean duen eragina ebaluatzea zen. Azterlan horretan komunitateko farmazietako farmazialariek eta lehen mailako arretako profesionalek parte hartu zuten.

KFek medikazioan desadostasunak zituzten 240 paziente errekrutatu zituzten guztira. Desadostasunak adibidez, tratamendu aktiboaren orrian jasotako sendagai bat ez hartzea, tratamendu aktiboaren orrian jaso gabeko sendagai bat hartzea, agindutako medikazio-jarraibideari ez jarraitzea edo tratamendua bikoiztuta hartzea izan ziren.

KFk aurkitutako desadostasunak, zegokion txostenaren bidez, programa koordinatzeko ardura zuten lehen mailako arretako farmazialariei helarazten zitzaizkien. Hauek, lehen mailako arretako medikuarengana edo espezialistarengana bideratzen zituzten, preskripzioak egin zituenaren arabera, eta bildutako pazienteen larrialdietara eta ospitaleratzeetara egindako bisitak kuantifikatzen zituzten. Bai lehen mailako arretako medikuak bai espezialistak, behin KFren txostena jasotzen zutenean, arazoa aztertzen zuten eta zegokien moduan jarduten zuten, (4. irudia).



4. irudia. Ikerketaren garapena. LMAM: Lehen mailako arretako medikua; KF: Komunitateko farmazialaria.

Ikerketan parte hartu zuten paziente guztiek baimen informatua sinatu zuten, azterlana hasi aurretik, 2. eranskinean jasotako ereduaren arabera. Aldi berean, programaren protokoloari buruzko informazio zehatza jasotzen zuen orri bat eman zitzaien idatziz. Azterlana Helsinkiko adierazpenean oinarrituta diseinatu zen, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Medikamentuen gaineko Ikerkuntzako Batzorde Etikoak onartu zuen.

Ebaluazio ekonomikoa Osasun Sistema Nazionalaren ikuspegitik egin zen, eta zerbitzuaren kostu-eraginkortasunaren azterketa egin zen. Kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlazio inkrementala (ICER) esku-hartzearen aurretik eta ondoren kostuak alderatzeko erabili zen.

Emaitzen analisi estatistikoa SPSS programaren bidez egin zen (18. bertsioa: Windows XP Microsoft, USA). Emandako medikamentuen kopuruan izandako aldaketak, larrialdietara egindako bisitak eta ospitaleratzeak kuantifikatu eta alderatu egin ziren interbentzioaren aurretik eta ondoren, Studenten t testaren bidez lagin independenteetarako. Txi-karratuaren proba eta Fisherren testa aztertutako aldagaien banaketa-maiztasuna aztertzeko erabili ziren. Aldagaiek kostu-eraginkortasunean duten eragina ebaluatzeko balio bakarreko sentzibilitate-azterketa bat ere egin zen. Datuak aldagai kategorikoetarako zenbaki eta portzentaje gisa aurkeztu ziren, eta aldagai jarraituetarako desbideratze estandar gisa.

BIBLIOGRAFÍA

1. Morisky DE, Green LW, Levine DM . Concurrent and predictive validity of a self-reported measure of medication adherence. *Med Care*. 1986;24(1):67-74.
2. Ministerio de Sanidad Servicios Sociales e Igualdad. Actividad física para la salud y reducción del sedentarismo. 2016. 2020ko martxoaren 16an sartua. Hemen eskuragarri: https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/Recomendaciones_ActivFisica.htm
3. Moher D, Liberati A, Tetzlaff J, Altman D. Preferred Reporting Items for Systematic Reviews and Meta-Analyses: The PRISMA Statement. *Plos Med*. 2009;9(7):e1000097.
4. Review Manager (RevMan) [Computer program]. Version 5.3. Copenhagen: The Nordic Cochrane Centre, The Cochrane Collaboration, 2014.

A decorative banner with a dark green background. The word "EMAITZAK" is written in white, bold, uppercase letters in the center. The banner is framed by two horizontal green lines. Various colorful icons are scattered around the banner, including a white hexagon with a blue circle, a yellow hexagon with a blue circle, a blue hexagon with a white circle, and a blue hexagon with a white circle.

EMAITZAK

1. KAPITULUA

**KOMUNITATEKO FARMAZIALARIEN ETA
LEHEN MAILAKO ARRETAKO MEDIKUEN
ESKU-HARTZE PERTSONALIZATUEK
ESTATINEKIKO ATXIKIDURA HOBETZEN DUTE
ESPAINIAKO AUSAZKO SAIKUNTZA
KONTROLATU BATEAN**

1.1 SARRERA

Munduko heriotzen herenaren eragile diren gaixotasun kardiobaskularren arrisku faktore nagusietako bat da hiperkolesterolemia¹. Dislipemien kontrolean gako dira jarduera fisikoa, dieta eta tratamenduarekiko atxikidura^{2,3}. Hala ere, lipidoen mailak jaisteko erabiltzen diren tratamenduak gutxiegi erabiliak daude gaur egun⁴ eta osasungarriak ez diren bizitza-ohiturak ohikoak izaten dira hiperkolesterolemia jasaten dute gaixoetan⁵.

Egun, tratamenduarekiko atxikidura eza, magnitude izugarria duen eta gehien gaixotasun kronikoak dituztenek jasaten duten arazo bat da⁶. Hiperkolesterolemiak, sintoma zuzenik ez duen gaixotasuna da, eta horregatik, atxikidura falta tasak altuagoak dira⁷. Ez da erraza, estatinen atxikidura eza zenbatekoa den zehaztea, baina tratamenduaren hasieran % 50 ingurukoa dela esan ohi da, eta portzentai hau handitu egiten da normalean denbora pasa ahala⁸. Atxikidura eza ospitaleratze tasa⁹, morbiditate eta hilkortasun tasa^{10,11} eta osasun-kostu altuagoekin lotuta dago^{12,13}. Hala ere, lipidoen mailak jaisteko erabiltzen diren medikamentuen atxikidura eza eta gertaera kardiobaskularren arteko erlazioa ez dago argi.

Atxikidura ezaren arrazoiak, nahitaezkoak edota nahigabeak, osasun sistemarekin, komunitatearekin, finantza-baliabideekin, tratamenduarekin edota gaixoarekin erlazionatuak egon daitezke⁶. Esku-hartze ugari azertu dira lipidoen maila jaisteko erabiltzen diren medikamentuen atxikidura eza hobetzeko. Horien artean tratamenduaren sinplifikazioa^{14,15,16,17}, medikamentua hartzea gogorarazten duten sistemen erabilera^{18,19,20} eta gaixoari informazioa helaraztea^{21,22} izan dira ohikoenak. Hala ere, ez dago gaixotasun kronikoa duten pazienteen atxikidura eza hobetzen duen esku-hartze konkreturik eta beharrezkoa izaten da estrategia desberdinak konbinatzea²³.

Komunitateko farmazialariak (KF) eta lehen mailako arretako medikuak (LMAM) gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen atxikidura eza identifikatzeko eta esku-hartze egokiak emateko egoera bikainean daude^{24,25}. Azken urteotan, lipidoen mailak jaisteko medikamentuen atxikidura eza hobetzea helburu duten osasun-

profesionalen esku-hartzeak aurkeztu dira^{26,27}. Hala ere, gutxi batzuk bakarrik aztertu dute atxikiduraren erlazioa emaitza klinikoekin^{28,29}. Duela gutxi argitaratu den berrikuspen sistematiko batean, pazienteari emandako esku-hartzeak lipidoen maila jaisteko medikamentuen atxikidura handitzen duela eta kolesterol totalaren maila jaisten duela ondorioztatu da⁷. Hala ere, proposatutako esku-hartze hauek konplexuak dira, esku-hartze mota bat baino gehiago biltzen dituzte eta lortutako emaitzak ez dira kongruenteak, eta honek, datuen konparaketa zailtzen du³⁰. Atxikidura ezaren arrazoia identifikatzen duen eta ondoren, esku-hartze egokiena aukeratzen duen prozedura ikasten duen ikerketek, atxikidura eta emaitza klinikoaren artean erlazioa dagoen azalduko lukete.

Kasu askotan, bizitza-ohiturak estatinen atxikidura ezarekin lotuak daude³¹. Nahiz eta estatina baten preskripzio berri baten aurrean bizitza-ohitura egokiak jarraitzeko aholkua ematen den, ohitura txarrak ohikoak izaten dira estatinak hartzen dituzten pertsonetan³². Lipidoen maila jaisteko medikamentuen atxikiduraz gainera, jarduera fisikoa eta dieta osasungarria oso garrantzitsuak dira hiperkolesterolemiaren tratamenduan^{2,3}. KF eta LMAM-ak eskuragarri dauden osasun profesionalak dira eta osasun-hezkuntza pazienteei helarazi diezaiekete profesional egokienak ere bai^{33,34}.

Testuinguru honetan, ikerketa honen helburua, Espainia mailan, KF eta LMAM-ek helarazitako esku-hartzeen eragina estatinen atxikiduran ikertzea da. Esku-hartze hauek kolesterol totalean eta pazienteen bizi-ohituretan duten eragina ere ikertuko da.

1.2. METODOAK

Azterlanaren diseinua eta etikaren onarpena

Ikerketa hau sei hilabeteko iraupena duen aleatorizatutako eta kontrolatutako lana da. Espainiako 10 probintzietako (Andaluzia, Aragoi, Asturias, Euskadi, Gaztela-Mantxa, Galizia, Katalunia, Extremadura, Madril eta Valentzia) 46 komunitateko farmazia eta lehen mailako arretako 50 zentrok hartu zuten parte, 2014ko otsaila eta


2016ko ekaina bitartean. Ikerketa ez zen lehenago erregistratua izan baina jarraipen prospektibo eta behaketazko bezala sailkatua izan zen (EPA-SP) Espainiako medikamentu eta osasun produktuen agentziaren (Aemps) bitartez (OAT-HIP-2013-01, 07/05/2013). Ikerketa lana Aemps-ek eta probintzia guztietako medikamentuen gaineko ikerkuntza batzorde etikoek behin baimena eman ondoren hasi ziren. (Informazioa hau ikerketaren sustatzaileen bitartez egiaztatu daiteke: contacto@oatobservatorio.com; cofgipuzkoa@redfarma.org).

Ikerketa honen protokoloa Helsinki-adierazpenaren arabera eginda dago. Parte-hartzaile guztiek baimen informatua eman zuten ikerketan sartzeko ulean.

Parte-hartzaileak

Honako irizpide hauen arabera bildu ziren pazienteak: 18 urte baino gehiagokoak, estatina baten preskripzioa azken 3 hilabeteetan eta baimen informatuaren sinatutakoa. Errehabilitazio kardiakoaren inguruko beste edozein programetan parte hartutakoak, osasun profesionalekin komunikatzeko gaitasuna ez zutenak, estatinak bere kabuz hartzeko gai ez zirenak, mendekotasuna zutenak, egoitzetan bizi zirenak edota azken sei hilabeteetan gertaera kardiobaskularren bat jasan zuten pertsonak ikerketatik kanporatuak izan ziren.

Osasun profesional bakoitzak gutxienez sei pertsona bildu behar zituen. Horietatik bik tratamenduarekiko atxikidura (ATX) egokia azaltzen zutenak, eta lau atxikidura eza (ATX-E) zutenak (1. Irudia). Behin 6 pertsona bildu ondoren (2 ATX eta 4 ATX-E), eta pertsona gehiago biltzeko aukera bazuten, hondoko sekuentzia jarraituz bilduak izan ziren, proportzionaltasuna gal ez zedin: ATX / ATX-E edo ATX-E / ATX. Ikerketaren hasierako atxikidura egoera Morisky-Green-Levine testa erabiliz baloratua izan zen. Atxikidura eza zuten pazienteak, ausaz esku-hartze taldera (EH) edo ez-esku-hartze taldera (E-EH) esleituak izan ziren (1. Irudia). Aleatorizatzea hau kanpoko ikertzaile batekin egin zen SAS Software programa erabiliaz (SAS (r) 9.2 -; Copyright 2002-2003 by SAS Institute Inc., Cary, NC, USA).



1. irudia: Consort diagrama, hiru taldeen barneko pertsona kopuruen progresioa adierazten duena EH: Esku-hartze taldea; E-EH: Ez esku-hartze taldea; ATX: Atxikidura egokia dutenen taldea. Datuak [denen datuak (komunitateko farmaziako datuak/lehen mailako arretako medikuen datuak)] bezala azaltzen dira.

Ikerketaren prozedura

EH taldeko partaideek, atxikiduran adituak ziren farmazialari eta lehen mailako arretako medikuek elkarrekin diseinatutako esku-hartze bat jaso zuten. Pazienteak esandakoan eta atxikidura ezaren arrazoian oinarrituta zegoen estrategia bat proposatu zen (1. Taula). Lehenik eta behin, KF edo LMAM-ak atxikidura ezaren arrazoa identifikatzen zuen. Arrazoi hau nahitaezkoa edota nahigabekoa izan zitekeen. Nahigabekoen arrazoen barnean, desgaitasuna eta ahaztea zeuden. Nahitaezkoen arrazoen barnean, tratamenduari buruzko ezjakintasuna, medikamentuarekin lotutako arrazoiak, arrazoi psikologikoak, osasun sistemarekin zerikusia zutenak eta arrazoi ekonomikoak zeuden. Behin arrazoa identifikatu ondoren, KF edota LMAM-ak esku-hartzerik egokiena proposatzen zion pazienteari. Ondorengo bisitetan, atxikidura eta horrekin batera esku-hartzearen eraginkortasuna ebaluatzen ziren Morisky-Green-Levine testa erabiliaz. E-EH eta ATX taldeko partaideek ohiko arreta jasotzen zuen KF edota LMAM-aren aldetik. Datu guztiak online zegoen datu base elektronikoko batean gordetzen diren (e-CRF). Honek, datuen enkriptazioa eta jarraipena baimentzen zuelarik.

1. taula: EH taldeko pazienteei emandako esku-hartzeen deskribapena.

Atxikidura ezaren arrazoiak Ez nahitako atxikidura eza	Proposatutako esku-hartzeak
Desgaitasuna Ahaztea	<ul style="list-style-type: none"> ○ Posologia gaixoaren egoerara moldatu.** ○ Medikamentuen hartzearen erregistroa mantendu. ○ Piktogramak eta posologia medikamentuaren kutxan ipini. ○ Dispentsagailuak edo Sistema pertsonalizatuak erabili. ○ Medikamentua hartzea gogoratzen duten alarmak erabili.

1. taula (jarraipena): EH taldeko pazienteei emandako esku-hartzeen deskribapena. Nahitako atxikidura eza

Gaixotasuna edo medikamentuaren inguruko ezjakintasuna	<ul style="list-style-type: none"> • Ez du bere egoera hobetu nahi • Ez du ongi bereganatu medikamentua edo gaixotasunari buruzko informazioa • Ez da gaixotasunaren larritasunaren jabe • Ez da tratamenduaren onuren jabe • Ez da tratamendua ez jarraitzeak dituen ondorioen jabe • Medikamentu generikoak markakoak baino okerragoak direla uste du. 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Estandarizatutako informazioa eman bai ahoz baita idatziz ere: <ul style="list-style-type: none"> - Gaixotasunari buruz - Tratamenduaren onurei buruz - Osasun edukazioa (jarduera fisikoa, dieta egokia etab.). ○ Posologia gaixoaren egoerara moldatu. ** ○ Medikamentuen hartzearen erregistroa mantendu. ○ Piktogramak eta posologia medikamentuaren kutxan ipini.
Medikamentuarekin erlazionatutakoa	<ul style="list-style-type: none"> • Polimedikazioa • Posologian zailtasunak • Forma farmazeutikoak arazoak ematen dizkio • Sendagaien kontrako erreakzioa 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Medikura bidaldu dosia aldatu edo moldatzeko. * ○ Tratamenduari buruzko informazioa eman. ○ Medikamentua hartzeko onurak eta ez hartzearen arriskuak adierazi. ○ Medikura bidaldu dosia aldatu edo moldatzeko. *
Psikologikoak Osasun sistemarekin erlazionatutakoa	<ul style="list-style-type: none"> • Sinesmen kulturalak edo bestelakoak • Medikua eta farmazialariak informazio desberdina eman die • Zailtasunak osasun sistemarekin (medikura joateko zailtasunak adibidez). 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Medikura bidaldu medikamentua aldatzeko. ** ○ Medikua edo farmazialariarekin hitz egitera bultzatu. ○ Familia edo zaintzaileekin hitz egitera bultzatu.
Ekonomikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Medikamentuengatik ordaindu beharrekoa 	<ul style="list-style-type: none"> ○ Medikamentuen kostua gutxitzeko aukerak kontutan hartu

* Komunitateko farmazialariak bakarrik egiteko esku-hartzeak. ** Medikua bakarrik egiteko esku-hartzeak

Formakuntza

KF eta LMAM-ek bi orduko formakuntza jaso zuten. Bertan protokoloari, hiperkolesterolemiari, estatinen tratamenduari, atxikidura eza antzemateko estrategiari eta atxikidura bermatzeko esku-hartzeari buruzko formakuntza jaso zuten. Ikerketa martxan zegoen bitartean KF eta LMAM-ak ikerlarien laguntza jaso zuten edozein zalantza argitu ahal izateko.

Neurtutako emaitzak

Estatinen atxikidura izan zen emaitza nagusia eta Morisky-Green-Levine testarekin neurtu zen

³⁵. Estatistika arrazoiengatik partaideak atxikidura zuten (galdera guztiak ongi erantzunda) eta atxikidura ez zuten bezala (galdera bat edo gehiago gaizki erantzunda) sailkatuak izan ziren. Atxikidura ezaren arrazoa eta proposatutako esku-hartzea bisita bakoitzean erregistratu ziren. Atxikidura ezaren arrazoa nahitako eta nahigabeko bezala sailkatu ziren. Pazienteak esku-hartze bat baino gehiago jasotzen bazuen, estatistika arrazoiengatik, bi taldetan banatuak izan ziren: (i) nahigabeko atxikidura eza hobetzeko helburua zuten esku-hartzeak (arrazoia desgaitasuna edo ahaztea zenean) eta (ii) nahitako atxikidura eza hobetzeko helburua zuten esku-hartzeak (arrazoia medikamentua edo tratamenduren inguruko ezjakintasuna, gaixotasunarekin, medikamentuarekin, psikologikoa, osasun sistemarekin edo ekonomiarekin erlazionatua zegoenean).

Kolesterol totala komunitateko farmazian Refloton® Plus (Roche) -rekin neurtua izan zen eta ospitaleko laborategian berriz, zentro bakoitzeko prozesu analitikoa jarraituz. Kolesterol totalaren helburu terapeutikoak dikotomizatu egin ziren helburua lortu (< 200mg/dl) edo ez lortzean (≥ 200 mg/dl).

Jarduera fisikoa eta dieta jarraitzea ere ebaluatu ziren. Espainian, biztanleriaren gomendio orokorretan oinarrituta ³⁶, pazienteak dikotomizatu egin ziren ariketa fisikoa egiten zutenak eta egiten ez zutenak. Aurretikan argitaratutako gomendioetan oinarrituz ³⁶, azukre eta gantz gutxiko dieta jarraitzen zutenak eta ez zutenak ere dikotomizatu egin ziren

Laginaren tamaina

Estatinen atxikidura maila % 50ekoa baino gutxiagokoa dela ikusi da³⁷. Atxikiduraren % 50-65eko hobekuntza detektatzeko, potentziaren % 80rekin eta 0,05eko p balioarekin, 160 paziente behar izan ziren talde bakoitzeko. Laginaren tamaina atxikiduran diferentziak bilatzeko helburuarekin egin zen eta aleatorizazioa EH eta E-EH taldeetan egin zen 1:1 distribuzioa mantenduz. Horretarako OpenEpi softwarea erabili zen (<http://www.openepi.com/Menu/OpenEpiMenu.htm>).

Analisi estatistikoa

Kolmogorov-Smirnov eta Shapiro-Wilk testak erabili ziren datuen distribuzioa ebaluatzeko. Emaiza klinikoen aldaketen analisia binakako laginen t-testa edo lagin parametrikotarako t student testa erabili zen. Parametrikotan ez ziren laginak faktore bakarreko ANOVA (Friedman) analisiarekin ebaluatu ziren. Txi-karratua (χ^2) eta Fisherren test zehatza ikertutako datuen banaketaren maiztasuna eta taldearekiko erlazioa ebaluatzeko erabili ziren. Kobariantza-analisia (ANCOVA), ikerketan zehar izandako kolesterol-aldaketetarako eta hasierako balioekiko doikuntzarako erabili zen. Erregresio anizkoitzaren analisia, osasun profesionalen esku-hartzeak kolesterol-mailetan duen eragina ebaluatzeko; eta erregresio logistiko bitarraren analisia, profesional sanitarioak atxikiduran duen eragina ebaluatzeko. Datuak aldagai kategorikoetarako zenbaki eta portzentaje gisa aurkeztu ziren, eta aldagai jarraituetarako media \pm eta desbideratze estandar gisa.

Analisi guztiak *intention-to-treat (ITT)* erabiliz egin ziren³⁸. Hala ere, *per-protocol* analisia ere era paraleloan egin zen emaitzak alderatu ahal izateko. ITT analisirako, datuen egozpen anitzeko sistema erabili zen eta galdutako pazienteen datuak emaitza guztietarako egotzi ziren. Per-protocol analisisian lehenengo eta azken bisitetan datuak zituzten partaideak hartu ziren kontuan.

Emaizen analisi estatistikoa SPSS programaren bidez egin zen (18. bertsioa: Windows XP Microsoft, USA). Bi ilaretako p-ren balioa 0,05 baino txikiagoa bazen, esanahi estatistikoko balioztat hartu zen.

1.3. EMAITZAK

Pazienteak biltzea

Guztira 746 paziente bildu ziren, horietatik 303 LMAM-ak bildu zituen eta gainontzeko 443ak KF-ak bilduak izan ziren. 1. Irudian talde bakoitzeko pazienteen zenbakiak ageri dira. 281 paziente (% 37,6) ATX taldean sailkatu ziren (KF: 120; LMAM: 161) eta 465 ATX-E taldean, non horietatik 237 paziente (% 31,8) EH taldean aleatorizatu ziren (KF: 148; LMAM: 237) eta 228 (% 30,6) E-EH taldera (KF: 94; LMAM: 134). Guztira, 221 pazienteek ez zuten ondorengo bisita bete. Galdu ziren pazienteen datu demografikoak analizatu ondoren, ez zen desberdintasunik aurkitu ikerketan mantendu zirenekin alderatuta ($p > 0,05$). Gainera, erregistratu ziren pazienteen kopurua antzekoa izan zen KF-ko eta LMAM-eko taldean (1. Irudia).

Tratamenduarekiko atxikidura zuten pazienteek kolesterol totalaren balio baxuagoak zituztela adierazten du hasierako analisiak, atxikidura ez zutenekin alderatuz gero (ATX: 200.3mg/dl vs E-ATX: 216.72mg/dl; $p < 0.001$). Pazienteen adina eta diagnostikatu zituzteneko data ere desberdinak ziren taldeen artean (2. Taula).

2. taula. Ikertutako pazienteen datu demografikoak ikerketaren hasieran[^].

	ATX (n = 281)	ATX-E		p *	p #
		E-EH (n = 228)	EH (n = 237)		
Guztira (n = 746)					
Adina, urteak	65,8 (10,6)	61,9 (11,8)	63,7 (11,3)	<0,001	0,833
Genero femeninoa	148 (52,7)	128 (56,1)	122 (51,5)	0,636	0,426
Kolesterol totala (mg/dl) [\bar{x} (SD)]	200,3 (42,8)	219,3 (46,3)	211,7 (52,7)	<0,001	0,862
Diagnostikatutako data, urteak [\bar{x} (SD)]	7,6 (7,1)	6,3 (6,1)	6,1 (5,6)	0,023	0,986
Fitoesterolak hartzea, bai	15 (5,3)	12 (5,2)	16 (6,8)	0,720	0,423
Dieta jarraitzea, bai	132 (47,0)	103 (45,2)	99 (41,8)	0,482	0,216
Ariketa fisikoa egitea, bai	196 (70,0)	147 (64,5)	149 (62,9)	0,488	0,188

2. taula (jarraipena): Ikertutako pazienteen datu demografikoak ikerketaren hasieran[^].

KF-ak bilduak (n=303)	(n = 120)	(n = 94)	(n = 89)		
Adina, urteak	65,2 (11,9)	61,5 (12,7)	63,9 (12,9)	0,098	0,898
Genero femeninoa	66 (55,0)	62 (66,0)	54 (60,7)	0,299	0,327
Kolesterol totala (mg/dl) [\bar{x} (SD)]	207,2 (41,7)	222,1 (44,8)	217,0 (48,9)	0,052	0,415
Diagnostikatutako data, urteak [\bar{x} (SD)]	8,2 (8,4)	6,1 (5,5)	5,2 (4,8)	0,018	0,605
Fitoesterolak hartzea, bai	7,0 (5,8)	6 (6,3)	5 (5,6)	0,984	0,554
Dieta jarraitzea, bai	43 (35,8)	29 (30,9)	33 (37,1)	0,431	0,268
Ariketa fisikoa egitea, bai	82 (68,3)	54 (57,4)	53 (59,6)	0,408	0,844
LMAM-k bilduak (n=443)	(n = 161)	(n = 134)	(n = 148)		
Adina, urteak	66,3 (9,6)	62,2 (11,2)	61,8 (10,5)	<0,001	0,478
Genero femeninoa	82 (50,9)	66 (49,3)	68 (45,9)	0,685	0,351
Kolesterol totala (mg/dl) [\bar{x} (SD)]	196,0 (40,7)	218,9 (44,0)	214,4 (46,9)	<0,001	0,480
Diagnostikatutako data, urteak [\bar{x} (SD)]	7,3 (6,2)	6,3 (6,4)	6,6 (6,0)	0,397	0,678
Fitoesterolak hartzea, bai	8 (5,0)	6 (4,5)	11 (7,4)	0,494	0,212
Dieta jarraitzea, bai	89 (55,3)	74 (55,2)	66 (44,6)	0,314	0,884
Ariketa fisikoa egitea, bai	114 (70,8)	93 (69,4)	96 (64,9)	0,709	0,576

[^] Datuak n eta (%) bezala ageri dira, batz bestekoa eta desbideratze estandarra ageri denean izan ezik [\bar{x} (SD)].

ATX: Atxikidura taldea; EH: Esku-hartze taldea; E-EH: Esku-hartzerik gabeko taldea; □: batz bestekoa; SD: desbideratze estandarra; KF: Komunitateko farmazialaria; LMAM: Lehen mailako arretako medikua.


* ATX, EH, eta E-EH taldeen analisiak ANOVA eta Txi-karratua testa erabiliz egin dira.

EH eta E-EH taldeen analisiak Student-en t-testa eta Fisher-en test zehatza erabiliz egin dira.

Osasun profesionalen esku-hartzea

Ikertutako iraupenaren barnean, atxikidura hasieran, 3. hilabeteetan eta 6. hilabeteetan analizatu da. Lagin errepikatueterako Friedman testak, estadistikoki atxikidura egokia lortzen duten pazienteen gorakada esanguratsua erakusten du, eta atxikidura egokia lortzen duten pazienteen portzentaia handiagoa da EH taldean (2. irudia). Atxikidura lortzen duten pazienteen portzentaia % 9,5 altuagoa da esku-hartzea 6 hilabeteetan jaso ondoren ($\chi^2=22.87$, $p < 0.001$) esku-hartzea jaso ez duten pazienteekin alderatuz gero (2A irudia). Erregresio logistikoa egin zen hasierako

ezaugarri demografikoek atxikiduran eragina zuten ikusteko lehenik (ATX taldea vs EH eta E-EH taldeak), eta ezaugarri hauek esku-hartze profesionalean eragina zuten ikusteko bigarren. Osasun profesionalek egindako esku-hartzeek estatinen atxikidura hobetzen dute ikerketaren 6 hilabeteen buruan (%95 KT: 1,30-1,76; $p < 0,001$)] (S1 taula). Adina eta generoa atxikidurarekin zertxobait erlazionatuta zeudela esan daiteke. *Per-protocol* analisiak ez zituen emaitza desberdinak aurkitu ITT analisiarekin alderatuta (ikusi taula osagarria).




2. irudia. Estatinekiko atxikiduraren egoeraren aldaketa hasieran atxikidura eza zuten partaideen artean. A) Denera (komunitateko farmazialaria + lehen mailako arretako medikua), b) Komunitateko farmazia eta C) Lehen mailako arretako medikua. Errepikatutako laginen Friedman testa erabili da atxikidura esku-hartzearekin eta taldearekin erlazionatzeko. EH: Esku-hartze taldea. *: $p < 0,05$, **: $p < 0,01$. EH eta E-EH taldeen arteko atxikiduraren desberdintasuna Txi-karratua testarekin egin dira.

Bildutako pazienteen artean, atxikidura arrazoiak ikerketaren hasieran analizatu ziren. Nahigabeko atxikidura falta (% 55,7; n=132) ohikoagoa zen nahitako atxikidura faltarekin alderatuta (% 44,3; n=105). Gehien proposatu zen esku-hartzea nahigabekoa zenean arrazoia (% 80,7) dispentsagailuak eta Sistema pertsonalizatuak erabiltzea izan zen (% 74,6), posologia medikamentuaren kutxan jartzea (% 59,8) eta medikamentua hartzea gogorarazten dituzten alarmak erabiltzearen (% 31,2) aurretik. Nahitaezkoa zenean arrazoia (% 60,9), gehien proposatu zen esku-hartzea gaixotasuna edota tratamenduari buruzko informazioa ematea (% 92,6) izan zen.

Kolesterol totalaren maila bi taldeetan jaitsi zen ikerketaren amaieran (EH: -11,06mg/dl, $p < 0,001$; E-EH:-10,4mg/dl, $p < 0,001$). Per-protocol analisian ere jaitsiera ikusten da bi taldeetan baina estadistikoki esanguratsua EH taldean besterik ez da (EH: 210,18 mg/dl vs. 197,59 mg/dl, $p = 0,028$; E-EH: 223,32 mg/dl vs. 214,42 mg/dl, $p = 0,127$). Atxikidura eta kolesterol totalaren arteko erlazioa ebaluatzeko helburuarekin, ikerketa amaierako datua estratifikatu egin ziren, ikerketa amaieran atxikidura lortu zutenak alde batetik eta ikerketa amaieran atxikidura eza mantendu zutenak bestetik. Tratamenduarekiko atxikidura lortu zuten pazienteek kolesterol totalean balio baxuagoak erakutsi zituzten, atxikidura eza mantendu zutenekin alderatuta (ATX: $197,33 \pm 35,32$ mg/dl vs ATX-E: $212,23 \pm 40,68$ mg/dl; $p < 0.001$) (3. irudia). ANOCVA analisiarekin hasierako kolesterol totaleko balioekin doitu ondoren, 6 hilabeteko osasun profesionalaren esku-hartzearen ondoren estadistikoki esanguratsua den kolesterol totalaren jaitsiera frogatzen da ($p < 0.001$).

Ikerketaren hasieran, kolesterol totalaren balio normalak zituzten pazienteen artean ez zegoen alderik EH eta E-EH taldeen artean (2. taula). Hala ere, proportzio hau altuagoa zen ($\chi^2 = 21,78$, $p < 0,001$) EH taldean (% 52,1) E-EH taldearekin (% 45,0) alderatuta ikerketaren amaieran. *Per-protocol* analisiak ez zituen emaitza desberdinak aurkitu ITT analisiarekin alderatuta (ikusi taula osagarria).



3. irudia: Kolesterol totalaren aldaketa hasiera eta amaieraren (6. hilabetea) artean. Analisia Student-en testa erabiliz egin da. Estadistikoki esanguratsuak diren desberdintasunak atxikidura duten eta ez duten taldeetan bakarrik agertzen dira ***: $p < 0.001$

Ikerketaren hasieran, jardura fisikoa egin eta dieta jarraitzen zuten pazienteen artean ez zegoen alderik (2. taula). Hala ere, ikerketaren amaieran EH taldeko partaide gehiagok (hasiera: % 62,9 vs. amaiera: % 93,1, $p < 0,001$) egiten zuten jardura fisikoa, E-EH taldekoekin (hasiera: % 64,5 vs. amaiera: % 65,7 min, $p = 0,998$) eta ATX taldekoekin (hasiera: % 70,0 vs. amaiera: % 69,7, $p=0,985$) alderatuta, azken bi taldeotan ez bait zen igoerarik sumatu. Dieta jarraitzearen inguruan, ikerketaren amaieran EH taldeko partaide gehiagok (hasiera: % 41,8 vs. amaiera: % 68,4; $\chi^2 = 5,45$, $p = 0,002$) jarraitzen zuten kolesterola jaisteko dieta bat E-EH taldekoekin (hasiera: % 45,2 vs. amaiera: % 51,3, $\chi^2 = 0,47$, $p = 0,627$) eta ATX (hasiera: % 47,0 vs. amaiera: % 48,2, $\chi^2 = 0,73$, $p=0,712$) taldekoekin alderatuta, azken bi taldeotan ez bait zen igoerarik sumatu. *Per-protocol* analisiak ez zituen emaitza desberdinak aurkitu ITT analisiarekin alderatuta (ikusi taula osagarria).

Komunitateko farmazialarien eta lehen mailako arretako medikuen esku-hartzea

KF-en esku-hartzearen ondoren, EH taldeko partaideen % 20,1ak gehiagok ($\chi^2=40,27$, $p < 0,001$; 2B irudia), ikerketa tratamenduarekiko atxikidura egokia izaten amaitu zuten, E-EH taldeko partaideekin alderatuta. Honek esan nahi du, KF-en 6 hilabeteko esku-hartzeak estatinekiko atxikidura hobetzen duela (OR = 2,34; % 95 KT: 1,87-3,03; $p < 0,001$) (ikusi taula osagarria). Nahiz eta KF-en esku-hartzearen ondoren kolesterol totalaren mailak ez zuen desberdintasun esanguratsua adierazi bi taldeen artean (EH: -5,1 mg/dl vs E-EH: -4,7mg/dl; $p = 0,571$), ikerketaren amaieran atxikidura egokia zuten partaideek kolesterol total balio baxuagoak zituzten ($209,7\pm 29,50$ mg/dl), atxikidura eza mantendu zuten partaideekin ($221,7\pm 45,14$ mg/dl) alderatuta ($p < 0,001$).

LMAM-en esku-hartzearen ondoren, ez zen estadistikoki esanguratsua zen aldaketarik sumatu atxikiduraren inguruan ($p > 0,05$) (2C irudia) eta kolesterol totalaren mailak ez zuen desberdintasun esanguratsua adierazi bi taldeen artean (EH: -12,7mg/dl; $p < 0,001$; E-EH: -15,2mg/dl; $p = 0,303$). Hala ere, ikerketaren amaieran atxikidura egokia zuten partaideek kolesterol total balio baxuagoak zituzten ($191,05\pm 36,38$ mg/dl), atxikidura eza mantendu zuten partaideekin ($207,9\pm 37,71$ mg/dl) alderatuta ($p = 0,047$).

Nahigabeko atxikidura eza ohikoagoa zen nahitako atxikidura ezarekin alderatuta, bai KF baita LMAM-en taldean ere. Dispentsagailuak edota dosifikazio sistemak erabiltzea izan zen nahigabeko atxikidura eza KF taldean gehienetan proposatu zen esku-hartzea. LMAM taldean berriz, posologia pazientearen egoerara moldatzea izan zen. Nahitako atxikidura eza hobetzeko ordea, bai KF baita LMAM taldean ere, idatzizko zein ahozko informazioa helaraztean izan zen.

Dieta jarraitzen zuten pazienteen eta aktibitate fisiko gehiago egiten zuten pazienteen portzentaia handitu egin zen ikerketaren amaieran, hasierarekin alderatuta eta bi taldeetako partaideek (KF+LMAM) joera berdina erakutsi zuten.

1.4. EZTABAIDA

KF-en eta LMAM-en 6 hilabeteko esku-hartzeak estatinekiko atxikidura hiperkolesterolemian eta honen erlazioa kolesterol total mailarekin eta bizimodu osasungarriekin nolakoa den, ikertzen du programa honek. Lortutako emaitzen arabera KF-en esku-hartzeak estatinekiko atxikidura hobetzen du, ikerketaren hasiera atxikidura eza zuten pazienteetan. Gainera, tratamenduarekiko atxikidura, kolesterol totalaren gutxitzearekin eta bizimodu osasungarriak eskuratzearekin erlazionatuta dagoela ematen du.

Osasun profesionalen esku-hartzea jaso ondoren, estatinekiko atxikidura handiagoa erakutsi zuten pazienteek, esku-hartzea jaso ez zuten pazienteekin alderatuta, KF eta LMAM-en 6 hilabetetako esku-hartzeak eraginkorra dela ondorioztatuz. Tratamenduarekiko atxikidura egokia erakutsi zuten pazienteak era indibidual batean ikertu ondoren, kolesterol totalaren maila jaitsi egiten dela frogatu da. Honako aurkikuntza hauek, atxikidura eta lipido mailen erlazioa ikertu zuten eta lehenago argitaratutako beste ikerketa batzuekin bat datoz ^{7,39}. Autore batzuen ustetan, kolesterol totalaren hobekuntzak, 6 hilabete baino luzeagoak diren ikerketetan nabarmenagoak dira ^{7,40} beraz, 6 hilabete baino denbora gehiagoz, partaideei jarraipena egin bazitzaie, agian, kolesterol totalaren jaitsiera nabarmenagoak aurkituko ziren gure ikerketan. Bestalde, ikerketaren hasieran atxikidura egokia zuten partaideek kolesterol total maila baxuagoak erakutsi zituzten, atxikidura eza zuten partaideekin alderatuta, eta honek, estatinekiko atxikidura kolesterol totalaren mailekin erlazionatuta egon daitekeen ideia indartzen du. Kolesterol totalaren mailek gertaera kardiobaskularrekin zer ikusia dutenez, kolesterol totala jaisteak gertaera kardiobaskularrak ekiditen lagundu lezakela pentsa daiteke ⁴¹. Gure ikerketen emaitzek KF eta LMAMen esku-hartzeak kolesterol total maila egokia duten paziente gehiago lortzen dituela iradokitzen dute. 200mg/ml baino kolesterol total maila baxuagoak izateak arrisku kardiobaskularra gutxitzen du gainera paziente hauetan ⁴¹.

Izan dira tratamenduarekiko atxikidura hobetzeko helburuz, osasun profesionalen esku-hartzea eta emaitza klinikoak ikertu eta argitaratu diren ikerketak, baina horietatik oso gutxi ikertu dute gai hau hiperkolesterolemian. Esaterako,

baliozkotutako bi galdetegi erabiliz, ez zuten lipidoak jaisteko tratamenduarekiko atxikiduran aldaketarik ikusi Aslani eta kolaboratzaileek ⁴². Faulkner eta kolaboratzaileek⁴³, operazio kirurgiko bat jasan zuten pazienteek atxikidura hobetzeko helburua zuen ikerketa batean, bi urteko jarraipena egin ondoren, lipido mailak jaitsi egin zirela ikusi zuten. Beste ikerketa batean, tratamenduarekiko atxikidura eta lipido mailak hobetu zirela ikusi zuten tratamendua hartzera gogorarazten zuen egutegi bat erabiliz ⁴⁴. Honako ikerketaren emaitzak, lehenago argitaratutako eta lipido mailak jaisteko medikamentuen atxikidura ikertzen duen Cochrane berrikuspen sistematiko batekin datoz ados⁷. Gure ikerketan ematen den esku-hartzearen funtsa, atxikidura ezaren arrazoia identifikatu eta horren arabera esku-hartzerik egokiena aukeratzea da. Horregatik, esku-hartzea atxikidura ezaren arrazoiaren arabera pertsonalizatzea gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen atxikidura eza hobetzeko estrategia eraginkorra izan daitekeela ondorioztatzen da.

Guk dakigunez behintzat, ikerketa hau KF eta LMAM-en esku-hartzeak estatinen atxikiduran duen eragina ikertzen duen lehen ikerketa-lan handia da. Esku-hartzea KF eta LMAM-ekin batera diseinatu zen, bi eremuetan, bai farmazia komunitarioan baita lehen mailako arretan ere, proiektua arrakastaz ezarri ahal izateko helburuarekin. Medikamentuekiko atxikidura hobetzea helburu duten eta medikamentua hartzea gogorarazten duten alarmak erabiltzen dituzten esku-hartzeen eraginkortasuna, komunitateko farmazian ^{42,19} eta ospitale eremuan frogatu da ^{45,46}. Bestalde, beste ikerketa batzuetan, ez da hobekuntzarik aurkitu tratamenduarekiko atxikiduraren garrantziaz pazienteari hitz egitean edota gaixotasunari buruzko informazioa pazienteari ematean, ez komunitateko farmazian²¹ ezta ospitale eremuan ere ^{22,26}. Ikerketa honetako emaitzak ikusita, atxikidura hobetzeko, arrazoia antzematea eta esku-hartzerik aproposena gomendatzea, tratamenduarekiko atxikidura hobetzea helburu duten esku-hartzeen parte izan beharko luke.

Ikerketa honen emaitzen arabera, KF-ek emandako esku-hartzeak pazienteen tratamenduaren atxikidura gehiago handitzen du MAP-ak emandako esku-hartzearekin alderatuta. Hala ere, kontutan hartu behar da, gure ikerketan, E-EH taldeko pazienteen atxikidura ere handitu egiten dela, batez ere MAP-en taldean. Hobekuntza hau arrazoi desberdinengatik gerta daiteke. Adibidez, Hawthorne

efektua deritzona, non pazienteak bere portaera aldatzen du behatua izateagatik⁴⁷. Hala ere, emandako esku-hartzeak analizatzean, emaitzek erakusten dutenaren arabera, medikazio pertsonalizatua eta posologia kutxetan idaztea izan dira nahigabekoak diren atxikidura ezak hobetzeko gehien proposatu direnak, eta idatzizko nahiz ahozko informazioa ematea nahitazkoa denean atxikidura eza. Esku-hartze hauek KF-k ematen dituen esku-hartzeak dira eta dagoeneko euren eraginkortasuna egiaztatuta dago^{48,49}. Honek guztiak, KF tratamenduaren atxikidura hobetzeko egokiena den osasun profesionala delakoaren ideia indartzen du.

Ikerketaren hasieran jasotako datu demografikoek, atxikidura egokia duten pazienteak zaharragoak direla erakusten du. Nahiz eta ikerlari batzuek, atxikidura denborarekin galtzen joaten dela esan⁵⁰, 102 ikerketa biltzen dituen berrikuste sistematiko baten ondorioa, adineko pertsonen tratamendurekiko atxikidura handiagoa erakusten dutela da⁵¹. Hau guztia kontutan hartuta pentsa daiteke, nahiz eta atxikidura eza adinarekin erlazionatu, pertsona helduetan denbora falta bezalako faktoreek asko eragiten dutela. Pertsona hauentzako komunitateko farmazia, eskuragarri daukaten osasun-establezimendua da eta erreferentziarako zentro bilakatu daiteke tratamenduaren atxikidura hobetzeko helburuarekin.

Dieta eta jarduera fisikoaren ohiturak ere aldaketak jasan zituzten ikerketaren amaieran. Dieta jarraitzen zuten eta ariketa fisikoa egiten zuten pazienteen portzentaia handiagoa zen EH taldean E-EH taldearekin alderatuta. Emaitzak hauek hurreko ikerketetan lortu direnekin bat datoz^{52,53}. Uste denagatik, bizimodu aldaketak eta tratamendu farmakologikoa jarraitzeak gaixotasun kronikoen prebalentzia gutxitu eta progresioa moteltzen dute⁵⁴. Horregatik, proposaturiko esku-hartzeak bai emaitza klinikoak, baita bizimodua alda dezakela ondorioztatzen da.

Honako ikerketak muga batzuk ditu. Esaterako, hasieran parte hartu zuten paziente askok ez zuten ikerketa amaitu eta 6 hilabete baino lehenago kanporatu egin ziren. Partaide-galtze tasa hau, tratamendu kronikoen atxikidura analizatzen duten beste ikerketa batzuetan gertatzen denaren antzekoa da^{55,56}, baita lipidoak jaisteko medikamentuak barneratzen dituzten ikerketetan gertatutakoaren antzekoa ere⁴², gainera, ITT analisia erabili da emaitzak analizatzeko garaian eta honek balio galduak

kontutan hartzen ditu. Bestalde, kontutan hartu behar da KF eta MAP-ek ez zutela inolako ordainketarik jaso ikerketan parte hartzeagatik. Hau kontrakoa izango balitz, agian, partaide gehiago bildu edo gutxiago galduko zirela uste da ⁴⁴. Klusterizatua ez den ikerketa bat izateagatik, lokalizazio alborapen arriskua dago. Pazientea zein taldean dagoen jakiteak KF edo MAP-ak era desberdin batera jokatzearagin dezake, baina horrek esku-hartze eta kontrol taldearen desberdintasunak gutxituko lituzke, beraz, emaitzetan lortutako diferentziak handiagoak izan litezke. Azkenik, atxikidura eta bizimodua partaideak emandako informazioaz baliatuz neurtu dira. Hala ere, neurtzeko teknika guztiek dituzten euren mugak¹² eta Morisky-Green-Levine testa atxikidura eza neurtzeko erabiltzen den galdetegi onartuenetako bat da⁵⁷.

Estatinekiko atxikidura eza denbora pasa ahala aldatu daitekela kontuan hartuz, esku-hartzearen eragina denboran zehar neurtu beharko litzake. Morbilitatea, hilkortasuna, bizi-kalitatea eta kostu-eraginkortasuna analizatzen dituzten ikerketak erabilgarriak izango liriateke osasun sistemak nondik joan behar duen erakusteko eta esku-hartzearen kostu-eraginkortasuna baieztatzeko.

Azken batean, ikerketa honen emaitzek osasun profesionalak 6 hilabetean emandako esku-hartzeak estatinekiko atxikidura handitzen dutela erakusten dute, batez ere, komunitateko farmazian bildu ziren pazienteen artean, eta hobekuntza hau kolesterol totalaren maila baxuagoekin eta bizimodu osasungarriagoarekin lotzea lortu da.

ESKERRAK

Eskerrak eman nahi dizkiegu ikerketan parte hartu duten komunitateko farmazialari, lehen mailako arretako mediku eta gainontzeko profesionalei. Artikuluko autoreok, proiektua aurrera eramateko izan dugun TEVA S.L.-ren laguntza eskertzen dute.

1.5. BIBLIOGRAFIA

1. World Health Organization. The World Health Report 2002 - Reducing risks, promoting healthy life. Available at www.who.int/whr/2002/en/whr02`en.pdf?ua=1. Geneva: World Health Organization, 2002 (2016ko abenduaren 18an ikusia).
2. Colantonio LD, Monda KL, Huang L, et al.: Patterns of statin use and outcomes following myocardial infarction among Medicare beneficiaries. Presented at ESC, London UK. 2015.
3. Athyros VG, Mikhailidis DP, Papageorgiou AA, Mercouris BR, Athyrou VV, Symeonidis AN, et al. Attaining United Kingdom-European Atherosclerosis Society low-density lipoprotein cholesterol guideline target values in the GREEK Atorvastatin and Coronary-heart.
4. Rosenson RS, Kent ST, Brown TM, et al. Underutilization of high-intensity statin therapy after hospitalization for coronary heart disease. *J Am Coll Cardiol*. 2015;65(3):270-277. doi:10.1016/j.jacc.2014.09.088.
5. S. Mannu G, J.S. Zaman M, Gupta A, U. Rehman H, K. Myint P. Evidence of Lifestyle Modification in the Management of Hypercholesterolemia. *Curr Cardiol Rev*. 2013;9(1):2-14. doi:10.2174/157340313805076313.
6. World Health Organization (WHO). ADHerence to Long-Term Therapies. Evidence for Action.; 2003. <http://apps.who.int/medicinedocs/pdf/s4883e/s4883e.pdf>.
7. van Driel ML, Morledge MD, Ulep R, Shaffer JP, Davies P, Deichmann R. Interventions to improve ADHerence to lipid-lowering medication. *Cochrane Database Syst Rev*. 2016:230-237. doi:10.1002/14651858.CD004371.pub4.
8. Huser MA, Evans TS, Berger V. Medication Adherence trends with statins. *Adv Ther*. 2005;22(2):163-171.
9. Peterson AM, Takiya L FR. Meta-analysis of trials of interventions to improve medication ADHerence. *Am J Heal Syst Pharm*. 2003;60(7):657-665.
10. DiMatteo MR, Giordani PJ, Lepper HS, et al. Patient Adherence and medical treatment outcomes: a meta-analysis. *Med Care*. 2002;40(9):794-811.
11. Schiff GD, Fung S, Speroff T et al. Decompensated heart failure: symptoms, patterns of onset, and contributing factors. *Am J Med*. 2003;114(8):625-630.
12. Osterberg, L, Blaschke T. Adherence to medication. *N Engl J Med*. 2005;353(5):487-497.
13. Mahoney JJA F, W.K. The unhidden cost of noncompliance. *J Manag Care Pharm*. 2008;14(6b):S1-S29.
14. Castellano JM, Gines S, Penalvo JL, Bansilal S, Fernandez-Ortiz A, Alvarez L, et al. A polypill strategy to improve ADHerence: results from the FOCUS Project. *Journal of the American College of Cardiology* 2014;64(20):2071-82.

15. Patel A, Cass A, Peiris D, Usherwood T, Brown A, Jan S, et al. A pragmatic randomized trial of a polypill-based strategy to improve use of indicated preventive treatments in people at high cardiovascular disease risk. *European Journal of Preventive Cardio*.
16. Selak V, Elley CR, Bullen C, Crengle S, WADHam A, Rafter N, et al. Effect of fixed dose combination treatment on ADHerence and risk factor control among patients at high risk of cardiovascular disease: randomised controlled trial in primary care. *BMJ* 2014.
17. Thom S, Poulter N, Field J, Patel A, Prabhakaran D, Stanton A, et al. Effects of a fixed-dose combination strategy on ADHerence and risk factors in patients with or at high risk of CVD (UMPIRE). *JAMA* 2013;310(9):918-29.
18. Derose SF, Green K, Marrett E, Tunceli K, Cheetham TC, Chiu VY, et al. Automated outreach to increase primary ADHerence to cholesterol-lowering medications. *JAMA Internal Medicine* 2013;173(1):38-43.
19. Eussen SRBM, van der Elst ME, Klungel OH, et al. A pharmaceutical care program to improve ADHerence to statin therapy: a randomized controlled trial. *Ann Pharmacother*. 2010;44(12):1905-1913. doi:10.1345/aph.1P281.
20. Nieuwkerk PT, Nierman MC, Vissers MN, Locadia M, Greggers-Peusch P, Knape LPM, et al. Intervention to improve ADHerence to lipid-lowering medication and lipidlevels in patients with an increased cardiovascular risk. *American Journal of Cardiology* 2012;110.
21. Gujral G, Winckel K, Nissen LM, Cottrell WN. Impact of community pharmacist intervention discussing patients' beliefs to improve medication ADHerence. *Int J Clin Pharm*. 2014;36(5):1048-1058. doi:10.1007/s11096-014-9993-y.
22. Willich SN, Englert H, Sonntag F, Voller H, Meyer-Sabellek W, Wegscheider K, et al. Impact of a compliance program on cholesterol control: results of the randomized ORBITAL study in 8108 patients treated with rosuvastatin. *European Journal of Cardiovascula*.
23. de Almeida Neto AC, Aslani P, Chen TF. Improving ADHerence to prescribed drugs. *BMJ*. 2009;339:b3282.
24. National Community Pharmacists Association. Medication ADHerence in America: A National Report. Alexandria, VA: National Community Pharmacists Association; 2013.
25. Bronner C, Bruce C . Medication compliance problems in general practice: detection and intervention by pharmacists and doctors. *AJRH*. 2002;10:32-38.
26. Park LG, Howie-Esquivel J, Chung ML, Dracup K. A text messaging intervention to promote medication ADHerence for patients with coronary heart disease: A randomized controlled trial. *Patient Educ Couns*. 2014;94(2):261-268. doi:10.1016/j.pec.2013.10.027.
27. Vrijens B, Belmans A, Matthys K, de Klerk E, Lesaffre E. Effect of intervention through a pharmaceutical care program on patient ADHerence with prescribed once-daily atorvastatin. *Pharmacoepidemiol Drug Saf*. 2006;15(2):115-121. doi:10.1002/pds.1198.

28. Ho PM, Lambert-Kerzner A, Carey EP, et al. Multifaceted Intervention to Improve Medication ADHerence and Secondary Prevention Measures After Acute Coronary Syndrome Hospital Discharge: A Randomized Clinical Trial. *JAMA Intern Med.* 2013;80220(2):1-8. doi:10.1001/jamainternmed.2013.12944.
29. Conthe P, Márquez-Contreras E. Documento de Consenso. Una Proximación Multidisciplinar Al Problema de La ADHerencia Terapéutica En Las Enfermedades Crónicas: Estado de La Situación Y Perspectivas de Futuro.; 2012.
30. M Viswanathan, CE Golin, CD Jones. Closing the quality gap: revisiting the state of the science (vol. 4: medication ADHerence interventions: comparative effectiveness). *Evid Rep Technol Assess.* 2012;2084:1-685.
31. Halava H, Korhonen M, Huupponen R, et al. Lifestyle factors as predictors of nonADHerence to statin therapy among patients with and without cardiovascular comorbidities. *CMAJ.* 2014;186(12):E449-56. doi:10.1503/cmaj.131807.
32. Warren J, Falster M, Fox D, L J. Factors influencing ADHerence in long-term use of statins. *Pharmacoepidemiol Drug Saf.* 2013;22(12):1298-1307. doi:10.1002/pds.
33. Ogbonna B, Ndukwe H. Community Pharmacists and Health Promotion Activities in the 21 st Century ; Maximizing the Expanded Roles for Universal Health Coverage and Population Health Optimization. *MOJ Public Heal.* 2017;6(3). doi:10.15406/mojph.2017.06.00174.
34. Beshir SA, Bt Hamzah NH. Health promotion and health education: Perception, barriers and standard of practices of community pharmacists. *Int J Heal Promot Educ.* 2014;52(4):174-180. doi:10.1080/14635240.2014.888809.
35. Morisky DE, Green LW, Levine DM . Concurrent and predictive validity of a self-reported measure of medication ADHerence. *Med Care.* 1986;24(1):67-74.
36. Ministerio de Sanidad Servicios Sociales e Igualdad. Actividad física para la salud y reducción del sedentarismo. 2016:1-28. https://www.msssi.gob.es/profesionales/saludPublica/prevPromocion/Estrategia/docs/Recomendaciones_ActivFisica_para_la_Salud.pdf.
37. Rosenson RS. Statin non-ADHerence: clinical consequences and proposed solutions. *F1000Research.* 2016;5(May):1-6. doi:10.12688/f1000research.8215.1.
38. Gupta S. Intention-to-treat concept: A review. *Perspect Clin Res.* 2011;2(3). doi:10.4103/2229-3485.83221.
39. De Vera MA, Bhole V, Burns LC, Lacaille D. Impact of statin ADHerence on cardiovascular disease and mortality outcomes: a systematic review. *Br J Clin Pharmacol.* 2014;78(4):684-698. doi:10.1111/bcp.12339.
40. Simpson RJ, Mendys P. The effects of ADHerence and persistence on clinical outcomes in patients treated with statins: A systematic review. *J Clin Lipidol.* 2010;4(6):462-471. doi:10.1016/j.jacl.2010.08.026.

41. Cholesterol Treatment Trialists' (CTT) Collaboration. Efficacy and safety of more intensive lowering of LDL cholesterol: A meta-analysis of data from 170 000 participants in 26 randomised trials. *Lancet*. 2010;376(9753):1670-1681. doi:10.1016/S0140-6736(10)61350-5.
42. Aslani P, Rose G, Chen TF, Whitehead PA, Krass I. A community pharmacist delivered ADHerence support service for dyslipidaemia. *Eur J Public Health*. 2011;21(5):567-572. doi:10.1093/eurpub/ckq118.
43. Faulkner MA, Wadibia EC, Lucas BD, Hilleman DE. Impact of pharmacy counseling on compliance and effectiveness of combination lipid-lowering therapy in patients undergoing coronary artery revascularization: a randomized, controlled trial. *Pharmacotherapy*. 2000;20(4):410-416. <http://onlinelibrary.wiley.com/o/cochrane/clcentral/articles/373/CN-00277373/frame.html>.
44. IOM (Institute of Medicine). 2010. Transforming Clinical Research in the United States: Challenges and Opportunities: Workshop Summary. Washington, DC: The National Academies Press.
45. Kardas P. An education-behavioural intervention improves ADHerence to statins. *Open Med*. 2013;8(5):580-585. doi:10.2478/s11536-013-0170-9.
46. Nieuwkerk PT, Nierman MC, Vissers MN, et al. Intervention to improve ADHerence to lipid-lowering medication and lipid-levels in patients with an increased cardiovascular risk. *Am J Cardiol*. 2012;110(5):666-672. doi:10.1016/j.amjcard.2012.04.045.
47. McCambridge J, Witton J, Elbourne DR. Systematic review of the Hawthorne effect: New concepts are needed to study research participation effects. *J Clin Epidemiol*. 2014;67(3):267-277. doi:10.1016/j.jclinepi.2013.08.015.
48. Clifford S, Garfield S, Eliasson L, Barber N. Medication ADHerence and community pharmacy: A review of education, policy and research in England. *Pharm Pract (Granada)*. 2010;8(2):77-88. doi:10.4321/S1886-36552010000200001.
49. Conn VS, Ruppert TM, Enriquez M, Cooper PS. Packaging interventions to increase medication ADHerence: systematic review and meta-analysis. *Curr Med Res Opin*. 2015;31(1):145-160. doi:10.1185/03007995.2014.978939.Packaging.
50. Turin A, Pandit J, Stone NJ. Statins and NonADHerence: Should We RELATE Better? *J Cardiovasc Pharmacol Ther*. 2015;20(5):447-456. doi:10.1177/1074248415578170.
51. Jin J, Sklar GE, Sen Oh VM, Chuen Li S. Factors affecting therapeutic compliance: A review from the patient's perspective. *Ther Clin Risk Manag*. 2008;4(1):269-286. doi:https://dx.doi.org/10.2147/TCRM.S1458.
52. Johal S, Jansen KM, Bell JS, et al. Do statin users ADHere to a healthy diet and lifestyle? The Australian Diabetes, Obesity and Lifestyle Study. *Eur J Prev Cardiol*. 2017;24(6):621-627. doi:10.1177/2047487316684054.
53. Lytsy P, Burell G, Westerling R. Cardiovascular risk factor assessments and health behaviours in patients using statins compared to a non-treated population. *Int J Behav Med*. 2012;19(2):134-142. doi:10.1007/s12529-011-9157-6.

54. Lin J, Sklar GE, Oh VM, Sen, Li SC. Factors affecting therapeutic compliance: A review from the patient's perspective. *Ther Clin Risk Manag.* 2008;4(1):269-286. doi:<https://dx.doi.org/10.2147/TCRM.S1458>.
55. Stewart K, George J, Mc Namara KP, et al. A multifaceted pharmacist intervention to improve antihypertensive ADHerenCe: a cluster-randomized, controlled trial (HAPPy trial). *J Clin Pharm Ther.* 2014;39(5):527-534. doi:10.1111/jcpt.12185.
56. Armour CL, Reddel HK, LeMay KS, et al. Feasibility and effectiveness of an evidence-based asthma service in Australian community pharmacies: a pragmatic cluster randomized trial. *J Asthma.* 2013;50(3):302-309. doi:10.3109/02770903.2012.754463.
57. Stirratt MJ, Dunbar-Jacob J, Crane HM, et al. Self-report measures of medication ADHerenCe behavior: recommendations on optimal use. *Transl Behav Med.* 2015;5(4):470-482. doi:10.1007/s13142-015-0315-2.

1.6. ERREFERENTZIA

Ainhoa Oñatibia–Astibia, Amaia Malet-Larrea, Belen Larrañaga, Miguel Ángel Gastelurrutia, Begoña Calvo, Dulce Ramírez, Ignacio Cantero, Ángel Garay, Estibaliz Goyenechea. Tailored interventions by community pharmacists and general practitioners improve ATXerence to statins in a Spanish randomized controlled trial. *Health Serv Res.* 2019;54(3):658–668. doi:10.1111/1475-6773.13152.

Material osagarria

S1 taula. Erregresio logistiko bat egin zen osasun profesionalen esku-hartzeak ikerketaren hasieran atxikimendurik ez zuten pazienteengan zuen eragina zehazteko, eta atxikimendu bihurtu ziren azterketaren amaieran (n=465). (Emaizta dikotomizatu egin zen: 0: atxikidura eza bai hasieran baita amaieran ere; edo 1: atxikidura eza hasieran eta atxikidura egokia amaieran).

OR: odds ratio; KT: Konfiantza tartera KF: Komunitateko farmazialaria; LMAM: Lehen

<i>Modeloa eta ezaugarriak</i>	<i>OR</i>	<i>% 95 KT</i>	<i>p-balioa</i>
Denera (n = 465)			
Osasun profesionalaren esku-hartzea	1,49	1,30-1,76	<0,001
Generoa	1,19	1,02-1,39	0,031
Adina	1,01	1,00-1,02	0,003
Eremua	0,86	0,78-1,02	0,078
Komunitateko farmazia (n=183)			
KF esku-hartzea	2,34	1,87-3,03	<0,001
Generoa	1,21	0,94-1,58	0,146
Adina	1,01	0,99-1,01	0,248
Ospitale eremua (n=282)			
LMAM esku-hartzea	1,14	0,95-1,39	0,192
Generoa	1,20	0,98-1,47	0,773
Adina	1,06	1,01-1,03	0,003

mailako arretako medikua.

S2 taula. Ikertutako pazienteen datu demografikoak ikerketaren hasieran[^].[^] (per protocol analisia).

	ATX	ATX-E		p *	p #
		E-EH	EH		
Guztira (n = 525)	(n = 203)	(n = 159)	(n = 163)		
Adina, urteak	65,8 (10,4)	62,5 (11,9)	63,1 (11,0)	0,010	0,663
Genero femeninoa	105 (51,7)	93 (58,5)	87 (53,7)	0,416	0,368
Kolesterol totala (mg/dl) [\bar{x} (SD)]	199,7 (40,7)	219,9 (42,7)	215,1 (46,3)	< 0,001	0,343
Diagnostikatutako data, urteak [\bar{x} (SD)]	110 (54,2)	53 (33,3)	59 (36,2)	< 0,001	0,640
Fitoesterolak hartzea, bai	7,4 (6,9)	6,0 (5,6)	5,8 (5,0)	0,039	0,705
Dieta jarraitzea, bai	7 (3,4)	5 (3,1)	8 (5,0)	0,653	0,573
Ariketa fisikoa egitea, bai	122 (60,1)	93 (58,5)	88 (54,0)	0,487	0,416
Adina, urteak	163 (80,3)	126 (79,2)	124 (76,1)	0,542	0,507
KF-ak bilduak	(n = 86)	(n = 56)	(n = 61)		
Adina, urteak	65,6 (11,2)	63,2 (12,6)	65,8 (11,1)	0,393	0,276
Genero femeninoa	46 (53,5)	41 (73,2)	36 (64,3)	0,175	0,841
Kolesterol totala (mg/dl) [\bar{x} (SD)]	205,6 (41,4)	222,9 (45,8)	219,1 (48,2)	0,054	0,669
Diagnostikatutako data, urteak [\bar{x} (SD)]	41 (47,7)	18 (39,5)	21 (36,2)	0,074	0,558
Fitoesterolak hartzea, bai	7,8 (7,9)	6,0 (5,3)	4,7 (4,7)	0,053	0,222
Dieta jarraitzea, bai	5 (5,8)	3 (4,9)	3 (5,4)	0,978	0,998
Ariketa fisikoa egitea, bai	38 (44,2)	30 (49,2)	22 (39,3)	0,431	0,216
Adina, urteak	66 (76,7)	43 (76,8)	39 (63,9)	0,642	0,838
LMAM-ak bilduak	(n = 115)	(n = 98)	(n = 107)		
Adina, urteak	65,9 (9,9)	62,1 (11,6)	61,8 (10,8)	0,060	0,819
Genero femeninoa	59 (51,3)	52 (53,1)	49 (46,7)	0,656	0,396
Kolesterol totala (mg/dl) [\bar{x} (SD)]	195,4 (39,7)	218,1 (40,9)	212,9 (45,3)	< 0,001	0,403
Diagnostikatutako data, urteak [\bar{x} (SD)]	69 (59,0)	35 (35,7)	38 (36,2)	< 0,001	1,000
Fitoesterolak hartzea, bai	7,2 (6,3)	6,1 (5,8)	6,3 (5,1)	0,345	0,756
Dieta jarraitzea, bai	2 (1,7)	2 (2,0)	5 (4,8)	0,330	0,446
Ariketa fisikoa egitea, bai	83 (72,2)	63 (64,3)	66 (62,9)	0,314	0,833
Adina, urteak	97 (84,3)	83 (84,7)	85 (79,4)	0,756	0,452

^ Datuak n eta (%) bezala ageri dira, batz bestekoa eta desbideratze estandarra ageri denean izan ezik [\square (SD)].

ATX: Atxikidura taldea; EH: Esku-hartze taldea; E-EH: Esku-hartzerik gabeko taldea;

\square : batz bestekoa; SD: desbideratze estandarra; KF: Komunitateko farmazialaria;

LMAM: Lehen mailako arretako medikua.

* ATX, EH, eta E-EH taldeen analisiak ANOVA eta Txi-karratua testa erabiliz egin dira.

EH eta E-EH taldeen analisiak Student-en t-testa eta Fisher-en test zehatza erabiliz egin dira.

S3 taula. Atxikidura, jarduera fisikoa eta dietaren emaitzen laburpen (per-protocol analisia).

	Zenbakia (%)			Arrisku ratioa* (% 95 KT)	Arrisku desberdintasuna* (% 95 KT)
	EH (n=163)	E-EH (n=159)	ATX (n=203)		
Hasiera					
Atxikidura, bai	0 (0)	0 (0)	203 (100)	0,98 (0,02 - 48,87)	0,0 (-1,2 - 1,2)
Dieta, bai	88 (54,0)	93 (58,5)	122 (60,1)	0,92 (0,76 - 1,12)	-4,5 (-6,3 - 15,3)
Jarduera fisikoa, bai	124 (76,1)	126 (79,2)	163 (80,3)	0,96 (0,85 - 1,08)	-3,1 (-5,9 - 12,3)
Kolesterol totalaren helburua, bai	59 (36,2)	53 (33,3)	110 (54,2)	1,09 (0,80 - 1,47)	2,9 (-7,1 - 13,7)
Hirugarren hilabetea					
Atxikidura, bai	84 (51,5)	48 (30,3)	203 (100)	1,17 (1,30 - 2,26)	21,2 (10,9 - 31,8)
Amaiera					
Atxikidura, bai	104 (63,6)	73 (45,9)	203 (100)	1,39 (1,13 - 1,71)	17,4 (7,2 - 28,6)
Dieta, bai	117 (72,2)	103 (64,5)	131 (64,5)	1,11 (0,95 - 1,29)	7,7 (-3,1 - 17,1)
Jarduera fisikoa, bai	161 (98,6)	131 (82,4)	165 (81,3)	1,19 (1,11 - 1,28)	16,2 (10,2 - 22,5)
Kolesterol totalaren helburua, bai	97 (59,7)	64 (40,3)	112 (55,2)	1,48 (1,18 - 1,86)	19,4 (8,5 - 30,0)

* EH eta E-EH arteko arriskua kalkulatu da.

KT: Konfiantza tarte. EH: Esku-hartze taldea; E-EH: Ez esku-hartze taldea; ATX: Atxikidura egokia dutenen taldea.

S4 taula - Kolesterol totalaren emaitzaren laburpena (per-protocol analisia).

	EH		E-EH		ATX		Arrisku desberdintasuna* (% 95 KT)
	Hasiera b.b.(DE)	Amaiera b.b.(DE)	Hasiera b.b.(DE)	Amaiera b.b.(DE)	Hasiera b.b.(DE)	Amaiera b.b.(DE)	
Kolesterol totala (mg/dl)	211.7 (52.7)	201.7 (40.6)	219.9 (42.7)	205.4 (37.3)	199.7 (40.7)	188.4 (40.1)	4.5 (-6.64 - 14.54) e.e.

* Hasierako adinarekin eta diagnostikatutako denborarekin doitua EH eta E-EH taldeentzat.

e.e.: Ez esanguratsua; b.b.: Batez bestekoa; DE: Desbideratze estandarra; KT: Konfiantza tartea. EH: Esku-hartze taldea; E-EH: Ez esku-hartze taldea; ATX: Atxikidura egokia dutenen taldea.

2. KAPITULUA

**OSASUN PROFESIONALAREN ESKU-
HARTZEAK ESTATINEKIKO ATXIKIDURAN
DUEN ERAGINA, ATXIKIDURA EZAREN
ARRAZOIA KONTUAN HARTUTA**

2.1 SARRERA

Atxikidura eza, gehienbat gaixotasun kronikoak pairatzen dituzten gaixoei eragiten dien arazo konplexu eta gai-anitzekoa da. Atxikidura eza, duen prebalentzia altua eta sortzen duen morbiditate, hilkortasun eta osasun kostuengatik, osasun publikoko arazo bat bezala hartzen da [1].

Tratamenduarekiko atxikidura eza nahitazkoa edo nahigabekoa izan daiteke. Atxikidura eza nahitazkoa da, pazienteak era aktibo batean, nahita, medikamentua preskribatuta dagoen bezala hartzen ez duenean. Atxikidura eza nahigabekoa da pazienteak, nahigabe edo konturatu gabe, medikamentua hartzeaz ahazten denean [2]. Beraz, atxikidura hobetzeko esku-hartzeak desberdinak izango dira arrazoiaren arabera [2, 3].

Tratamenduarekiko atxikidura ikertzen duten azterlan asko argitaratu dira azken urteotan eta esku-hartze desberdinak proposatu dira [3]. Duela gutxi argitaratutako berrikuspen sistematiko baten emaitzek erakutsi dute, medikamentu kronikoen atxikidura hobetzeko erabilitako metodoen aldakortasuna handia dela oraindik, eta aplikatutako metodoen eraginkortasuna oraindik ez dela argitu [4]. Aurretiazko ikerketek frogatu dute atxikidura ezaren arrazoia identifikatzean oinarritutako esku-hartze batek estatinekiko atxikidura hobetu zuela eta paziente hiperkolesterolemikoen kolesterol-mailak murriztu zituela [5].

Beraz, azterlan honen helburua komunitateko farmazialariek (KF) eta lehen mailako arretako medikuek (LMAM) estatinekiko atxikidura eza hobetzeko helburuarekin, pazientearen atxikidura ezaren arrazoiaren arabera, hiperkolesterolemia duten pazienteen egindako esku-hartzeen ondorioa aztertzea da.

Etikaren onarpena

Ikerketa honen protokoloa Helsinkiko Adierazpenarekin bat zetorren eta Medikamentuen gaineko Ikerkuntzako Batzorde Etikok onartua izan zen. Parte-hartzaile guztiek baimen informatua eman zuten errekrutatzeko unean.

2.2 MATERIALA ETA METODOA

Ikerketaren diseinua, parte-hartzaileak eta prozedura.

Ikerketa hau sei hilabeteko iraupena duen aleatorizatutako eta kontrolatutako lana da eta komunitateko 46 farmazia eta lehen mailako arretako 50 osasun zentro barne hartu zituen Espainiako 10 probintzian.

Parte hartzaileen hautaketa eta ikerketan erabilitako prozedura beste nonbait xeheatasunez deskribatua izan da [5]. Era laburrean, KF-ak edota LMAM-ak gutxienez estatinen tratamendua zuten sei paziente errekrutatatu behar zituen. Pazientea errekrutatzeke unean Morisky-Green-Levine testa [6] erabiliaz, tratamenduarekiko atxikidura ikertu zitzairen. Atxikidura egokia ez zuten partaideak ausaz esku-hartze taldean (EH) edota ez esku-hartze taldean (E-EH) banatu ziren. Atxikidura egokia zuten eta E-EH taldeko pazienteak ohiko arreta jaso zuten eta EH taldekoek atxikidura ezaren arrazoia identifikatu ondoren, proposatutako estrategia egokiena ematean datzan esku-hartzea jaso zuten. Arrazoiaren arabera, pazienteak, nahitako atxikidura eza edo nahigabeko atxikidura eza bezala sailkatua izan zen (1. Taula).

1. taula. Esku-hartze taldean proposatutako estrategien deskribapena..

Arrazoia	Atxikidura eza mota	Proposatutako esku-hartzeak
Ez nahitako atxikidura eza		
Ahaztea	Ahaztea	<ul style="list-style-type: none"> - Piktogramak eta posologia medikamentuaren kutxan ipini. - Dispentsagailuak edo Sistema pertsonalizatuak erabili.
Nahitako atxikidura eza		
Gaixotasuna edo medikamentuaren inguruko ezjakintasuna	Formakuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Gaixotasunari, tratamenduaren onurari edota osasun heziketari buruzko ahozko eta idatzizko informazioa ematea.

Polimedikazioa, posologia jarraitzeko zailtasuna edo Sendagaien kontrako erreakzioa	Medikamentuarekin erlazionatutakoa	<ul style="list-style-type: none"> - Medikoarengana bidali dosi moldaketa edo medikamentu aldaketa baterako. - Tratamenduaren onurak eta ez hartzearen arriskuei buruzko informazioa ematea.
Sinesmen kulturalak edo bestelakoak	Psikologikoak	<ul style="list-style-type: none"> - Medikoarengana bidali medikamentu aldaketa baterako.
Medikamentu generikoen eraginkortasunari buruzko dudak izatea, informazio desberdina jasotzea mediku eta farmazialariarengatik, zailtasunak osasun sistemarekin	Estrukturalak	<ul style="list-style-type: none"> - Medikamentu generikoei buruzko informazioa ematea. - Mediku, farmazialari edo familiarrekin hitz egitera bultzatu.
Medikamentuengatik ordaindu beharrekoa	Ekonomikoa	<ul style="list-style-type: none"> - Medikamentuen kostua gutxitzeko aukerak kontutan hartu

Ondorengo bisitetan (3. eta 6. hilabeteetan) atxikidura eta ondorioz, esku-hartzearen eraginkortasuna baloratu ziren EH taldeko partaideen artean. Beharrezkoa balitz, beste mota batetako esku-hartzea proposatu zen.

KF eta LMAM-ek ikerketaren prozedurari buruzko bi orduko formakuntza jaso zuten, eta ikerketa martxan zegoen bitartean ikerlarien laguntza jaso zuten edozein zalantza argitu ahal izateko.

Neurtutako emaitzak

Estatinen atxikidura izan zen emaitza nagusia eta Morisky-Green-Levine testarekin neurtu zen bisita bakoitzean . Datu demografikoak ikerketaren hasieran bildu ziren.

Analisi estatistikoa


Datuak *per-perotocol* analisia erabiliz egin ziren, eta emaitzak *intention-to-treat* analisisian lortutakoaren antzekoak izan ziren [5]. Binakako laginen t-testa edo lagin parametrikotarako t student testa erabili zen aldagai parametrikotzat eta parametrikotan ez ziren laginak faktore bakarreko ANOVA (Friedman) analisiarekin ebaluatu ziren. Txi-karratua (χ^2) eta Fisherren test zehatza ikertutako datuen banaketaren maiztasuna eta taldearekiko erlazioa ebaluatzeko erabili ziren. Emaitzen analisi estatistikoa SPSS programaren bidez egin zen (18. bertsioa: Windows XP Microsoft, USA). Bi ilaretako p-ren balioa 0,05 baino txikiagoa bazen, esanahi estatistikoko balioztat hartu zen.

2.3. EMAITZAK

746 paziente bildu ziren guztira ikerketan (KF=303; LMAM=443). Atxikidura eza zuten 237 pazientetatik, ausaz, 237 EH taldean sailkatu ziren eta gainontzeko 228ak E-EH taldean. Hasieran, tratamenduarekiko atxikidura egokia zuten pazienteak (n=281; % 37,6), atxikidura eza zuten pazienteekin alderatuta (n=465; % 62,3), adin ($65,8 \pm 10,4$ vs. $62,3 \pm 11,6$ urte hurrenez hurren, $p < 0,001$), kolesterol total maila ($199,7 \pm 40,7$ vs. $215,5 \pm 49,8$ mg/dl hurrenez-hurren, $p < 0,001$) eta diagnostikatutako denbora ($7,4 \pm 6,9$ vs. $6,1 \pm 5,8$ urte hurrenez hurren, $p = 0,028$) desberdinak zituzten. Nahigabeko atxikidura eza zuten pazienteak zaharragoak ziren nahitazeko atxikidura ez zutenak baino ($64,0 \pm 11,6$ vs. $61,1 \pm 10,9$ urte hurrenez-hurren, $p = 0,035$). Ez zen desberdintasunik aurkitu KF eta LMAM taldeen artean.

Hasieran, paziente gehiago ziren nahigabeko atxikidura eza zutenak (% 56,6), nahitako atxikidura zutenak baino (% 43,4). Nahitako atxikidura ezaren barnean formakuntzarena izan zen arrazoi ohikoena (% 42,6), medikamentuarekin erlazioatutako arrazoi (% 25,2) eta arrazoi estrukturalen (% 22,8) aurretik. Arrazoi psikologikoak (% 5,0) eta ekonomikoak (% 4,5) izan ziren prebalentzia gutxien izan zutenak.

EH eta E-EH taldeak alderatzeko garaian, 3. hilabeteen, atxikidura egokia zuten paziente gehiago zeuden EH taldean E-EH taldean baino (EH - nahitazko atxikidura eza % 49,5 vs E-EH - nahitazko atxikidura eza % 35,3, $p < 0.001$ eta EH - nahigabeko atxikidura eza % 59,1 vs E-EH - nahigabeko atxikidura % 35,6, $p < 0.001$) baita 6. hilabeteen ere (EH - nahitazko atxikidura eza % 55,3 vs E-EH - nahitazko atxikidura eza % 36,1%, $p < 0.001$ eta EH - nahigabeko atxikidura eza % 66,4 vs E-EH - nahitazko atxikidura eza % 39,0%, $p < 0.001$) (1. irudia). Nahigabeko atxikidura eza zuten pazienteen artean, EH taldekoek bakarrik lortu zuten 3. hilabeteen atxikidura egokia zuten pazienteen portzentaia handitzea (EH nahigabekoa: % 59,1 vs. EH nahitazkoa: % 49,5, $p < 0.001$), baita 6. hilabeteen ere (EH nahigabekoa: % 66,4 vs EH nahitazkoa: % 55,3, $p < 0.001$) (1. irudia). Talde guztietan gehitu zen atxikidura egokia zuten partaideen kopurua ikerketaren amaieran, 3. hilabetearekin alderatuz, hala ere, igoera hau estadistikoki esanguratsua EH taldean bakarrik izan zen.



1. irudia: Ikerketaren hasiera atxikidura eza zuten pazienteen bilakaera 6 hilabeteetan zehar, atxikiduraren asmoa kontuan hartuta. INT: Esku-hartze taldea; NOINT: Ez esku-hartze taldea; ***: $p < 0,001$.

Medikamentuarekin zer ikusia zuten atxikidura eza zuten pazienteak izan ziren atxikidura egoki gehien lortu zutenak (% 59,4; $n=15$), formakuntza (% 41,6; $n=20$)

edo estructures (%53,7; n=14) arrazoiak zutenekin alderatuta ($\chi^2=1,35$, $p=0,472$). Ez zen desberdintasunik ikusi KF eta LMAM taldeen artean.

2.4. EZTABAIDA

Ikerketa honek, osasun profesionalak proposatutako esku-hartzeak, estatinekiko nahigabeko atxikidura eza hobetzeko eraginkorragoak direla erakutsi du, nahitako atxikidura ezarekin alderatuta.

Hainbat kongnitibo- eta jokabide-ereduk frogatu dute pazienteak tratamenduari buruz duen jarrera, faktore erabakigarria dela atxikiduran. [7, 8]. KF-ak edo LMAM-ak nahigabeko atxikidura eza identifikatzean, medikamentua hartzeaz gogorarazteko teknikak erabiltzen zituen gehienetan, eta honek ez du tratamenduarekiko pazienteak duen jarrera aldatzea eskatzen. Ikerketaren hasieran, paziente gehiagok zuten nahigabeko atxikidura ez, nahitazkoa baino eta pazienteen banaketa hau aurreko azterlanetan aurkitutakoaren antzekoa da [9].

Gure ezagutzarako, hau da tratamenduarekiko atxikidura eza, arrazoiak kontuan hartuta aztertzen duen lehen ikerketa. Hainbat egile ados daude, atxikidura ezaren arrazoiak identifikatzea ezinbestekoa dela atxikidura hobetzeko esku-hartzeen eraginkortasuna bermatzeko [10]. Esku-hartzeak nahigabeko atxikidura eza eraginkorragoak direla erakutsi denetik, osasun-arloko profesionalen ordaindutako esku-hartze jarraibideak emateak zerbitzu profesional errentagarriak eguneroko praktikan ezar ditzake.

Honako ikerketak muga batzuk ditu. Informatzeko alborapena ohikoa da pazienteak erantzuten duten galdetegietan. Galdetegi guztiek dituzte mugak eta ikerketa honetan Morisky-Green-Levine testa, jokabideari buruzko eta atxikidura ezaren arrazoiari buruzko informazio ematen duen galdetegiak, erabili da ikerketa honetan. Partaideen atxikidura eza nahitazkoa edo nahigabea den adieraztea KF eta LMAM-en iritzian datza. Hala ere, ikerketan parte hartutako osasun profesional guztiek, ikerketa hasi baino lehen, formakuntza jaso zuten eta uneoro, edozein zalantza argitzeko, ikerlari baten kontaktua zuten. E-EH taldeko partaideek atxikidura tasa

altuagoak zituzten ikerketaren amaieran. Hobekuntza hau arrazoi desberdinengatik gerta daiteke baina adibidez, Hawthorne efektua deritzonagatik izan liteke, non pazienteak bere portaera aldatzen du behatua izateagatik. Hala ere hobekuntza hau estatistikoki esanguratsua EH taldean bakarrik izan zen. Ikerketa honek atxikidura 6 hilabeteetan ikertzen du. Estatinekiko atxikidura eza denbora pasa ahala aldatu daitekela kontuan hartuz, ondorengo hilabeteetan hobekuntzak baieztatu egin beharko lirakeke. Azkenik, oso paziente gutxik izan zuten arrazoi ekonomiko edo psikologikoa eta esku-hartzeak arrazoi horietan duen eragina ondorioztatzeko, ikerketa gehiago beharko lirakete.

Laburbilduz, ikerketa honek tratamenduarekiko atxikidura hobetzeko emandako esku-hartzearen eraginkortasuna aztertzen du, atxikidura ezaren arrazoiak ikuspuntutik. Lortutako emaitzek esku-hartzearen eraginkortasuna handiagoa dela nahigabeko atxikidura eza duten partaideetan, nahitazko atxikidura eza dutenetan, baino adierazten dute, eta ondorio hauek inplikazio garrantzitsuak izan beharko lituzke ikertzaileentzat, hezitzaileentzat baita politikarientzat ere. Arrazoi ekonomiko eta psikologikoa dituzten pazienteen inguruko esku-hartzearen eraginkortasuna ondorioztatzeko ikerketa gehiago beharrezkoak dira, baita nahitazko atxikidura eza, nahigabeko atxikidura eza bezain beste hobetzeko esku-hartze egokienak aurkitzeko ere.

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu ikerketan parte hartu zuten komunitateko farmazialari, mediku , gainontzeko profesional eta pazienteei. Berariaz eskertzen diegu Belen Larrañaga eta Angel Garay-ri ikerketa hau aurrera eramateko egindako lanagatik.

Finantzaketa

Eskerrak eman nahi dizkiogu TEVA S.L. - ri eskainitako finantzaketarengatik.

Interes gatazkak

Idazleek ez dute interes gatazkarik.

2.5. BIBLIOGRAFIA

1. World Health Organization. Adherence to long-term therapies. 2003. https://www.who.int/chp/knowledge/publications/ADHerence_report/en/. Accessed 12 December 2018.
2. Martin LR, Williams SM. The challenge of patient Adherence. *Bariatr Nurs Surg Patient Care*. 2012;7(4):186.
3. Hugtenburg JG, Timmers L, Elders PJ, Vervloet M, van Dijk L. Definitions, variants, and causes of non-adherence with medication: a challenge for tailored interventions. *Patient Prefer ADHerence*. 2013;7:675–82.
4. Nieuwlaat R, Wilczynski N, Navarro T, Hobson N, Jeffery R, Keenanasseril A, et al. Interventions for enhancing medication adherence. *Cochrane Database Syst Rev*. 2014;(11):CD000011.
5. Oñatibia-Astibia A, Malet-Larrea A, Larrañaga B, Gastelurrutia MÁ, Calvo B, Ramírez D, et al. Tailored interventions by community pharmacists and general practitioners improve adherence to statins in a Spanish randomized controlled trial. *Health Serv Res*. 2019; 54(3):658–68.
6. Morisky DE, Green LW, Levine DM. Concurrent and predictive validity of a self-reported measure of medication adherence. *Med Care*. 1986;24(1):67–74.
7. Hagger MS, Hardcastle SJ, Hingley C, Strickland E, Pang J, Watts GF. Predicting self-management behaviors in familial hypercholesterolemia using an integrated theoretical model: the impact of beliefs about illnesses and beliefs about behaviors. *Int J Behav Med*. 2016;23(3):282–94.
8. Johnson SS, Driskell MM, Johnson JL, Dymont SJ, Prochaska JO, Prochaska JM, et al. Transtheoretical model intervention for adherence to lipid-lowering drugs. *Dis Manag*. 2006;9(2):102–14.
9. Molloy GJ, Messerli-Bürgy N, Hutton G, Wikman A, Perkins-Porras L, Steptoe A. Intentional and unintentional non-adherence to medications following an acute coronary syndrome: A longitudinal study. *J Psychosom. Res*. 2014;76:430–432.
10. Osterberg L, Blaschke T. Adherence to medication. *New Engl J Med*. 2005;353(5):487-97.

2.6. ERREFERENTZIA

Ainhoa Oñatibia-Astibia, Amaia Malet-Larrea, Miguel Ángel Gastelurrutia, Begoña Calvo, Dulce Ramírez, Ignacio Cantero, Estibaliz Goyenechea. Effect of health professional intervention on ATXerence to statin use according to the cause of patient non-ATXerence. *International Journal of Clinical Pharmacy*. 2020;42(2):331-335.

3. KAPITULUA:

**KOMUNITATEKO FARMAZIALARIEN ESKU-
HARTZEA LIPIDO MAILAK JAISTEKO
MEDIKAMENTUEN ATXIKIDURA
HOBETZEKO ETA HONEN ERLAZIOA
EMAITZA KLINIKOETAN: BERRIKUSPEN
SISTEMATIKOA ETA META-ANALISIA**

3.1. SARRERA

Dislipemia, hau da, plasmako triglizerido, dentsitate txikiko lipoproteinen kolesterola (LDL-c) eta kolesterol total (TC) maila altuak edo dentsitate altuko lipoproteinen kolesterol maila txikiak (HDL-c) izatea, gaixotasun kardiobaskularretarako arrisku-faktore garrantzitsu gisa zehaztu da^{1,2}.

Osasunaren Mundu Erakundearen eta Baliabide Kardiobaskularren Taldearen arabera, Europa da munduko kolesterol altuaren prebalentzia handiena duen kontinentea, Europako biztanleriaren % 54ek kolesterol maila altuak bait ditu^{3,4}. Egoera horrek, mundu osoan, 2,6 milioi heriotza eragiten ditu urtean, eta 29,7 milioi desgaitasunagatik doitutako bizi-urteak (DALYS). Gaixotasun kardiobaskularren kostu orokorrak urtero 210 mila milioira igotzen dira Europar Batasunean eta 317 mila milioira Estatu Batuetan^{5,6}.

Medikamentuen atxikidura eza pertsona batek medikamentuak preskribatu bezala hartzen ez dituenaren gradua da⁷⁻¹⁰. Gaur egungo mundu mailako arazo handi bat da, bereziki herrialde garatuei eta garapen bidean daudenei eragiten diena⁷. Paziente batek atxikidura egokia ez duela esaten da, preskribatutako medikamentuen % 80a baino gutxiago hartzen duenean. Atxikidura ezaren prebalentzia handiagoa da gaixotasun kronikoetan⁷, esaterako biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK) (% 33)¹¹, eskizofrenia (% 52)¹², asma (% 67)¹³, Diabetes Mellitusa (DM) (% 78)¹⁴ edo dislipemia (% 60)¹⁵. Egoera horren ondorioz, bizi-kalitatea murriztu egiten da, ospitaleratzeak edo gaixotze-tasak handitu egiten dira, eta zama ekonomikoa areagotu egiten da kostu pertsonalengatik, baita osasun- eta gizarte-kostuengatik ere¹⁶. Tratamenduarekiko atxikidura eza % 60an kokatzen dela esaten da¹⁷ eta maila horretan hobekuntzak egitea errentagarria izango litzateke osasun sistemarentzat¹⁸.

Atxikidura eza nahitazkoa, pazienteak era arrazional batean tratamendua behar den bezala ez hartzea erabakitzen duenean, nahigabekoa, nahigabe ahaztuta edo egoeraren berri jakin gabe tratamendua jarraitzen ez duenean edota mixtoa izan daiteke^{19,20}, beraz, atxikidura hobetzeko esku-hartzeak arrazoiaren arabera proposatu behar dira²¹⁻²⁴. Hala ere emaitza ekonomiko, kliniko eta humanistikoak (ECHO) ezinbestekoak dira esku-hartzearen eraginkortasuna ikertzeko²⁵. Emaitza

klinikoen ikerketa, Emaitzak klinikoak zehaztea, gaixotasunaren edo tratamenduaren ondorioz gertatzen diren gertaera medikoak neurtzean datza, eta pazienteen arreta hobetzearekin justifikatuta dago²⁶.

Komunitateko farmazialaria, medikazioan oinarritutako praktika atzean utzi eta pazientean zentratutako praktika baterako trantsizioaren testuinguruan, profesional irigarrienetako bat da, banaketa-kateko azken mailan daudelako eta esperientzia dutelako medikamentuen gertaera kaltegarriak detektatzen. Gainera, gaixotasun kronikoak maneiatzeko profesional egokiak direla frogatu dute^{27,28}. Esku-hartze desberdinak proposatu dira tratamenduarekiko atxikidura hobetzeko asmoz²⁹. Osasun profesionalek esku-hartzeak atxikiduran eta emaitza klinikoetan izan duen eragina aztertu dute berrikuspen sistematiko batzuek³⁰⁻³⁴, baina horietatik bat ere ez da zentratu komunitateko farmazialarien esku-hartzean eta emaitza klinikoetan duen eraginean.

Horregatik, berrikuspen sistematiko honen helburua, komunitateko farmazialarien esku-hartzeak lipido mailak jaisteko medikamentuen atxikiduran duen eragina eta hobekuntza honek erlazioa duen osasun emaitzetan, ohiko arretarekin alderatuz, ikertzea da.

3.2. MATERIALA ETA METODOA

Hautatzeko eta bilaketa bibliografikoa egiteko irizpideak

Ausazko saiakuntza klinikoen (RCT) berrikuspen sistematiko bat egin zen, komunitateko farmazialarien esku-hartzeak pazienteak medikazio hipolipemianteari atxikitzean eta emaitza klinikoetan duen eragina ebaluatzeko. Ikerketaren protokoloa aurrez online erregistratua izan zen (CRD42016037213) eta *Preferred Reporting Items for Systematic Reviews and Meta-Analyses* (PRISMA) gida jarraitu zen uneoro³⁵ (1. dokumentu gehigarria). Atxikidura, medikamentuak hartzeari dagokionez pazientearen portaera, medikuarekin adostutako gomendioekin bat egiten duen maila gisa, ikertzen duten RCT-ak sartu dira berrikuspenean. Ez zen bazterketarik egin atxikidura neurtzeko eraren arabera, eta edozein metodo zituzten

ikerketak barneratu ziren. Estatinak diren hiperlipidemia tratatzeko gehien erabiltzen diren medikamentuak, baina lipidoen mailak jaisteko erabiltzen diren beste medikamentuak erabiltzen zituztenak ere gehitu dira. Emaiza klinikoa ikertzea ezinbestekoa zen ikerketa berrikuspenean sartzeko, baina emaitza kliniko bezala edozein lipido neurtzen zituzten ikerketak onartu ziren (kolesterol totala, LDL-kolesterola, HDL kolesterola eta triglizeridoak). Dislipemiarekin zer ikusia zuten beste emaitzak ere erregistratu ziren, esaterako, presio arteriala, glukosa mailak edota gorputz masaren indizea (GMI).

Baztertze irizpideak honako hauek izan ziren: (i) hiperkolesterolemia diagnostikoa ez zuten edo lipidoak jaisteko medikamentuak hartzen ez zituzten pazienteak zituzten ikerketak; (ii) tratamenduarekiko atxikidura helburu ez zuten ikerketak; (iii) atxikidura neurtzen ez ziren ikerketak; (iv) esku-hartzea komunitateko farmazialariak ematen ez zituzten ikerketak; (v) emaitza klinikoan neurtzen ez zituzten ikerketak; (vi) ikerketa pilotuak, berrikuspenak, berrikuspen sistematikoak, meta-analisiak, hitzaldietako laburpena, doktorego-tesiak eta iritzizko dokumentuak; eta (vii) kontrol-taldea ez zuten ikerketak.

Bilaketa sistematikoa egin zen datu-base bibliografikoetan (Medline, Cochrane Library, Science Direct, Scopus eta Web of Knowledge), 2019ko abendura arteko argitalpen garrantzitsuak bilatzeko³⁶. Bilaketa-estrategia bat garatu zen MeSH eta Emtree terminoak erabiliz, eta aurretik argitaratutako ikerketak ere egiaztatu ziren, bilaketaren egokitasuna bermatzeko.^{29,37} (2. dokumentu gehigarria). Gainera, argitaratutako beste berrikuspen sistematiko batzuk eta antzeko arloetako artikulak ere kontsultatu ziren, eta barneratutako artikuluen bibliografiak berrikusi ziren, aipatutako artikulak sartu zirela bermatzeko^{15,26,29,38}.

Ikerketen hautapena

Berreskuratutako artikulua guztiak erreferentziako kudeatzaile batean inportatu ziren (Mendeley), eta bi ikuskatzaile independentek (AOA eta AML), ezarritako irizpideen arabera hautatu zituzten garrantzitsuak izan zitezkeen artikulak. Hirugarren berrikusle batek (EG) desadostasunak zeuden kasuetan parte hartu zuen. Lehenik eta behin, inklusio-irizpidean betetzen ez zituzten artikulak, izenburutik eta laburpenetik lortutako informazioaren arabera baztertu egin ziren. Gainerako

artikuluen testu osoa lortu zen, eta baztertzeko irizpideren bat hautemanenez gero, baztertu egin zen.

Datuen eskuratzea

Honako datuak biltzen zituen taula estandarizatu batean bildu ziren datuak (1. taula): artikulua (egile nagusia, izenburua, argitalpen-urtea eta ingurunea), azterlana (helburua, ingurunea, azterlanaren diseinua, metodoa edo ausazko esleipena eta erreklutamendua, jarraipena, laginaren tamainaren kalkulua, gaixotasun kronikoa, parte-hartzaileak sartzeko irizpideak, inplikaturako pazienteen eta profesionalen ezaugarriak), farmazia-zerbitzua (zerbitzuaren izena, esku-hartzearen deskribapena, kronograma, ordainsaria eta gaikuntza). Emaiza klinikoak eta humanistikoak eta lortutako emaitzak neurtzea), atxikidura (neurketa-metodoa, metodoaren deskribapena, emaitza orokorrak eta espezifikokoak eta informazio gehigarria) eta gainontzeko datuak (ondorioak, mugak, finantzaketa-iturria eta beste datu garrantzitsu batzuk). Datuak bi ikerlarik egin zituzten (AOA eta AML) eta desadostasunak hirugarren batek konpondu zituen (EG). Datu bat positibotzat jo zen kontrol-taldearen (KT) eta esku-hartze taldearen (EH) artean, ikerketa amaieran estadistikoki esanguratsauk ziren emaitzak aurkitu baziren. Datu hauek eskuraezinak baziren, ikerketa hasiera eta amaierako aldaketa hartu zen kontuan, baina kasu horretan, lortutako emaitzak garrantzi gutxiago zuela kontutan hartuta. Bi aldagai nagusien emaitzak (atxikidura eta emaitza klinikoa) azpitaldeen arabera aztertu baziren, ikerketaren hasieran atxikidura eza zuten pazienteen emaitzak aukeratu ziren. Ikerketak honela sailkatu ziren: "Atxikidura hobetzen duten esku-hartzeak", KFaren esku-hartzearen ondoren atxikiduran emaitza positiboren bat aurkitu zuten ikerketak, edo "atxikidura hobetu zela frogatu ezin izan zuten esku-hartzeak", esku-hartzearen ondoren atxikiduran emaitza positiborik frogatu ezin izan zuten ikerketak.

Esku-hartzearen eraginaren neurketa

Datu jarraituak batezbestekoa eta desbideratze estandarra erabiliz islatu ziren. Datu dikotomikoak odds ratioak (OR) erabiliz islatu ziren, % 95eko konfiantza-tarteekin. Bi neurriko $p < 0,05$ balioa hartu zen, estatistika-garrantziaren maila gisa. Kolesterol-mailak mg/ml gisa islatu ziren. Mmol/l gisa jakinarazitako kolesterol-balioak mg/d bihurtu ziren ³⁹.

Galdutako datuak

Ikerketaren batean meta-analisan sartzeko behar ziren datuak eman ez baziren, dagokion egilearekin harremanetan jarri ginen informazio hori eskatzeko. Beharrezko datuak lortu ez baziren, azterketa kuantitatibotik (meta-analisia) kanpo utzi zen.

Datuen laburpena

Ikerketak (i) atxikipena neurtzeko metodoaren arabera sailkatu ziren: balioztatutako proba bat erabili zuten ikerketak alde batetik eta medikamentuen edukitze-erlazioak erabiliz (adibidez, medikamentuak dispentsatzeko datuak) beste aldetik.

Alborapen-arriskua

Alborapen-arriskua Cochrane tresnaren bidez ebaluatu zen (Rob 2.0) ⁴⁰. Kalitate metodologikoa ebaluatzeko aplikatutako irizpideek bost arlo hartu zituzten barnean: (i) ausazkotasun-prozesutik eratorritako alborapena, (ii) esku-hartzeen aurreikusitako desbideratzeengatik alborapena, (iii) emaitzei buruzko daturik ez egoteagatik alborapena, (iv) emaitza neurtzeko alborapena eta (v) emaitza informatua hautatzeko alborapena. Eremu bakoitza "arrisku handikotzat", "arrisku txikikotzat" edo "zalantza" bezala jo zen. Lortutako emaitzen arabera ikerketak honela kalifikatu ziren: "Alborapen-arrisku txikia", eremu guztietarako alborapen-arrisku txikia zehaztu zenean; "zalantzazko alborapena", gutxienez domeinu bat zenbait kezka planteatuz ebaluatu bazen eta ez bazegoen alborapen-arrisku handiko domeinurik; edo "alborapen-arrisku handia", gutxienez domeinu baterako alborapen-arrisku handia adierazi zenean, edo ikerkerlariek alborapenen inguruko kezkek zituztenean.

Meta-analisia

Nahikoa datu zeudenean, emaitzak era kuantitatibo batean analizatu ahal izateko meta-analisia egin zen. Meta-analisiak Review Manager V.5.3 (RevMan 5) ⁴¹ delakoan egin ziren, alderantzizko bariantza-metodoa eta ausazko efektuen eredia erabiliz. Atxikidura aldagai dikotomiko gisa neurtu zen. OR eta % 95eko KT zuten *forest plot*-ak sortu ziren. Kolesterol totala aldagai jarraitu gisa neurtu zen eta mg/dl-tan

adierazi zen. Batezbestekoen aldea eta desbideratze estandarra *forest plot* sortzeko kalkulatu ziren. Komunitateko farmazialariek emandako esku-hartzearen datuak baino ez ziren sartu.


Z proba bat erabili zen, meta-analisiaren emaitzaren esanahi estatistikoa ebaluatzeko $p < 0,05$ balioarekin. Heterogeneotasun klinikoa ebaluatzeko, esku-hartze motari dagokionez sartutako ikerketen alderagarritasuna aztertu zen. Heterogeneotasun estatistikoa Cochranen Q probaren bidez ebaluatu zen eta I^2 estatistikaren bidez neurtu zen. % 40-60 arteko I^2 balioak heterogeneotasun ertain adierazi zuen, eta % 60tik gorako I^2 balioak, berriz, heterogeneotasun handia ³⁶.

Ikerketa berean analisi-ikuspegi desberdinak zeudenean, metodo pragmatikoena (hau da, *per-protocol* bidezko analisiaren edo balioztatutako galdetegiko datuen ordez, *intention-to-treat* analisia edo dispentsazio elektronikoko datuak) eta iraupen handieneko datuak (hau da, 12 hilabeteko datuak, 6 hilabeteko datuen ordez) aukeratu ziren.

3.3. EMAITZAK

Ikerketaren deskribapena

Guztira, 1918 aukeragai artikulua bildu ziren bibliografia datu baseetatik (MEDLINE: $n=476$; Cochrane Library: $n=43$; Science Direct: $n=17$; Scopus: $n=1011$; Web of Knowledge: $n=371$). Eskuz, 42 ikerketa gehiago identifikatu ziren. Bikoiztuak kendu ondoren ($n=1217$) eta izenburuak eta laburpenak irakurri ondoren 104 artikulua gelditu ziren aukeragai moduan. Horietatik 98 kanporatuak izan ziren honakoagatik: lipido maila jaisteko medikamentuak ez edukitzea ($n=7$), atxikidura hobetzea helburu ez izatea ($n=57$), kontrol taldea ez izatea ($n=2$), atxikidura ez neurtzea ($n=11$), komunitateko farmazialariak esku-hartzea ez ematea ($n=9$) eta emaitza klinikoak ez neurtzea ($n=12$). Azkenean, 5 ikerketa barneratu ziren analisi kualitatiborako (1. irudia) ⁴²⁻⁴⁶.



1. irudia: Ikerketak hautatzeko faseen fluxu-diagrama.

Ikerketen ezaugarri orokorrak

Aukeratutako ikerketen argitaratze urteak 2010 eta 2019 bitartekoak izan ziren, eta gehienak Europan kokatuak. Konkreterki, 3 ikerketa Europan kokatu ziren⁴³⁻⁴⁵, 1 Australian⁴² eta beste bat Ipar Ameriketan⁴⁶. Ikerketa motaren arabera, 3 ausazko saiakuntza klinikoak ziren (RCT)⁴³⁻⁴⁵, eta gainontzekoak ausazko saiakuntza kliniko klusterizatuak (c-RCT)^{42,46}.

Ikerketa guztiek esku-hartzea xehetasunez azaltzen zuten eta denak aurrez-aurreko esku-hartzeak ziren^{42,43,45,46}, bat izan ezik, hura telefonozkoa zelako⁴⁴. Jarraipen-aldia 6 hilabetekoa zen 3 ikerketetan^{42,43,46} eta 6 hilabete baino gehiagokoa beste bietan^{44,45}. Bisiten maiztasuna bi hilabetekoa zen 2 ikerketetan^{45,46}, hiru hilabetekoa ikerketa batean⁴² eta aldakorra 2 ikerketetan^{43,44}. Ikerketa batek medikuen esku-hartzea zuen⁴⁶, baina beste 3 ikerketetan esku-hartzea komunitateko farmazialariarena bakarrik zen⁴²⁻⁴⁴. Ikerketa batean komunitateko farmazialari eta medikuek ematen zuten esku-hartzea baina emaitzen datuak bananduta islatzen zituzten⁴⁵.

Gaixotasun kronikoen inguruan, 4 ikerketetan dislipemia zuten pazienteak errekrutatu zituzten^{42,43,45,46}. Beste ikerketak dislipemiaz gainera beste gaixotasun kroniko bat izan zezaketen pazienteak bildu zituzten⁴⁴ baina analisirako egokia izan zen eta azken hau, pazienteen % 95,9ek hiperlipidemia zutela azaldu zen eta (1. taula).

Atxikidura neurtzen duten metodoen inguruan, 2 ikerketek balioztatutako galdetegiak erabili zituzten^{42,45}, 2 ikerketek dispentsazioko elektronikoko datuak^{43,46} eta ikerketa batek bi metodoak erabiliz zituen⁴⁴. Kolesterol totala behatzeko odol tanta bat erabiliz neurtu zen ikerketa guztietan⁴²⁻⁴⁵, batean izan ezik, non ospitaleko laborategian odol analisi oso batekin neurtu zen⁴⁶ (1. taula).

Onartutako 5 ikerketatik bietan, komunitateko farmazialariak esku-hartzeagatik ordainketa jaso zuten, 100 australiar dolar EH taldeko paziente bakoitzagatik eta 25 australiar dolar kontrol taldeko paziente bakoitzagatik lehenengoan⁴² eta 104 dolar eta 50 dolar hurrenez-hurren bigarrenean⁴⁶.

1. taula. Onartutako ikerketen ezaugarriak eta emaitzak.

Author	Title, year, country	Type of study / Sample size / Loss reason / Chronic disease	Intervention and control description / Professional implicated / Follow up / Frequency / Remuneration	Method of measurement of adherence	Adherence reported data	Clinical outcome reported data	Other reported data												
